

HAMABOSTEKARIA 163. zenbakia 1999ko uztailak 16

GOIERRITARRA



Ondo pasa
oporrak
eta festak!

3+1

3 ordaindu
eta 4 **KARRETE**
errebelatu

ARGAZKI HANDIAK
13x18-ko ARGAZKIAK
10x15-eko PREZIOAN

Oporretan irudirik onenak

Beasaingo estazio aurrean eta orain baita zine ondoan ere

FOTOETXE

FUJIFILM

Harlandu S. Coop batez ere profesionalen osatutako giza taldean oinarritzen den enpresa da. Bere azken urteetako esperientzia handia azken teknikekin lotu du diseinuan eta marmol, granito eta harrien akaberetan.

Horrela jaio da Harlandu, bere abangoardiako teknologiari inizatiba eta bere profesionalen taxua batu dizkion kooperatiba.



Marmolak
Granitoak
Harriak

Zubierreka industrialdea, 52 • LAZKAO
Tel.: 943 882 465 • Tel. eta faxa: 943 887 249

MARMOL, GRANITO ETA HARRI LANAK • SUKALDE ETA BAINUKO GAINAK • FATXADA ETA ZORUEN ESTALIAK • LAPIDAK



Sanitarioen instalazioa

Iturriak

Bainuko altzariak

Berogailu eta Gasa

*Festa zoriontsuak
opa dizkizuegu denoi!*

GOIHERRI, S. L.
Iturgintza

Urdaneta 24 ☎ 943 88 11 57 ORDIZIA



**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 943 88 96 12
Faxa: 943 88 27 19
<http://www.ordizia.net>

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Aitziber Murua, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastortza,
Edurne Albizu, Nagore Etxeberria,
Saroï Jauregi, Iñaki Gurrutxaga,
Maddalen Hernandez eta
Jose Ramon Pato.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu inprimategia
(Zubillaga auzoa, Oñati).

Tirada: 7.700 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Segurako saihesbidea
inauguratu da**

Segurako saihesbidea uztailaren 7an ireki zen ofizialki. Segurako kale estuetan izaten zen zirkulazio handiari irtenbidea eman nahi izan diote Gipuzkoako Diputazioak eta Segurako Udalak, Segurako hiriguneak duen balio historiko eta monumentala babes-tuaz.

Saihesbidearen luzera, 1.900 metrokoa da eta obra-ren kostua 330.000.000 pezetakoa izan da. Contrucciones Murias enpresak egin ditu lanak.

Trazatu berriak egungo errepidea utzi eta behera egiten du, Madurara. Zeraingo bidegurutzean egiten du bat lehengo bidearekin. Bi errotanda egin dituzte, Mutiloako eta Zeraingo bidegurutzean. Zubiberritik Zeraingo bidegurutzera bitartean zegoen oinezkoentzako pasabidea berregin egin da. Idiazabal-Segura bidezatian eguneko

2.779 ibilgailu pasatzen dira eta Segura-Zegama zatian 1.043. Hauetatik %10 ibilgailu astunak dira.

Fabrika obra aipagarriena Oria ibaiaren gaineko zubia da. Obra osagarri gisa, Oria ibaiaren gainean beste zubi bat egin da, Ondarre baserrira joateko zegoen zubi zaharra ordezkatzeko duena. Zeharkako hodi eta bide erreten ugari egin behar izan dira errepidearen aldamenetako lurretatik ura ibaira bideratzeko. Errepide berriaren inguruetan aurrikusi diren landaketak udazkenean egingo dituzte, sasoi hau ez baita landaketetarako egokia.

Inaugurazio ekitaldian, Roman Sudupe jarduneko Ahaldun Nagusia eta Antton Jaime jarduneko Errepide eta Garraio diputatua izan ziren, Segurako udal ordezkarien ondoan.

BOTA BERTSOA

**Gipuzkoako Eskolarteko
txapelketan botatako
bertsoak.**

Gaia: bihar azterketa garrantzitsu bat duzuela eta liburute-gian zaudete ikasten. Halako batean, alboko mahaian zuen irakaslea barre algaraka, Asterix eta Obelixen komikiak irakurtzen ari dela ohartu zarete.



Aitzol Munduate

Matematan kontrol bat degu oso zaila ta sakona, orain aurrera begiratuta joana zait zoriona, Asterix eta Obelixekin zenbat txiste eta broma, ez zera behintzat inolaz ere guretzat ejenplu ona.



Oier Zurutuza

Kontrolerako estudiantzen pasatuz gure unek, liburutegi hontako mahaia ditugu ikasguneak, gure maisua, hor irakurriz komiki txiki, xumeak mundu honetan gizon helduak izan ohi dira umeak.

**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

San Benito eta Belen Maiza

Proiektu bat aurrera eramateko garaian, 'Haurtzaindegia' zure kasuan, Lazkaoko ikastolaren ahalegina ontzat eman behar dugu Seaska eta Alotza Haur-Eskolako langileok. Aldi berean eta bereziki zuri zuzenduta, azken 20 urte hauetan bizi izandako bizi-pen eta gogoetak adierazi nahi dizkizugu.

Seaska eta Alotza Haur-Eskolak (beste proiektu asko bezala) gizartearen zegoen hutsune garrantzitsu bati erantzuteko jaio ziren, hainbat ekimen herrikoiei esker.

Hasierako helburua egoera sozialari lotua agertzen bazen ere, berehala iritsi ginen beste aldarrikapen honetara: "Haur-Eskolak haurren eskolak dira" eta haur txikien heziketa eskubideak babestu beharko zukeen Hezkuntza Lege baten behararen aurkitzen ginenez, hori bideratzea (Euskadi mailako Koordinakundean integraturik) zuzendu genituen gure aspaldiko ahaleginak, gaur egun, LOGSE legean gauzatu dena maila handi batean. Ez zen beraz 'slogan' hutsean gelditu gure aldarrikapena.

Eskabidea ordea ez zen Administrazioari begira bakarrik egin. Kontzienteak ginen honelako aldatetarako sektore guztien konpromezua eskatzen zuela, egiteko moduak aldatzea, prestaketak gehitzea... eta konsekuentzi horretan Haur-eskolak ere beren buruen gain hartu zuten hartu beharreko zama. Eredu egoki bat finkatzea izan zen abiapuntua. 'Haurtzaindegi' ezaugarriak utzi eta heziketa zentzuan gehiago murgiltzeko, nola ezkondu familia eta haurraren beharrak proiektu bakar batean, proiektu hori, gainera, haurraren heziketarako proiektu bat izateko.

Ustez helburua lortu dugu. Gure txikien beharrei egoki erantzuten dion eredu baten jarraitzaileak garea esan dezakegu, esan dezakegun bezala, irakaslegoaren formakuntza-exijentzia asumitu izan dugula bertan lana egiten dugun irakasle guztion aldetik. Eta gauza bera infrastrukturekin,

gaur egungo Legearen eskakizunekin bat etorriz.

Baina ibilbide honetan, hainbeste guraso eta hezitzaileen hazi eta fruituak zimeldu eta nahastearen alde azaldu zera, Goierritarra aldizkariak emandako aukera aprobetxatuz. Ez jakinaren ondorioa ote?

Seaska eta Alotza Haur-Eskolako langileak

Lazkaon haurtzaindegia jaio

Azken albisteek diotenez, Lazkaoko Ikastolak 0-2 urte bitarteko umeentzat haurtzaindegi zerbitzua jarri nahi du martxan. Zerbitzu hau 2-9 urte bitarteko umeentzat ere izango omen da. Adin hauetako umeak ditugunok eta antzeko zerbitzuak erabili ditugunok, jakin badakigu zenbaterainoko garrantzia duen honek guztiak edozein herrirentzat. Badirudi, gainera, Lazkaoko kasuan, merkatuaren analisi batek bermatutako ideia dela.

Proiektu honen inguruan dagoen guztia hemen bukatuko balitz, idatzi hau gure zorionik be-roenarekin amaituko genuke, baina Goierritarra aldizkariaren 161. alean agertzen den elkarrizketan, San Benito ikastolako arduradunek zera diote: "Inguruan dauden haurtzaindegiak nahiko tradizionalak dira eta zentro hauetan ikuspegi pedagogikoa ez da kontutuan hartzen". Gero, honela definitzen dute zentro berri hau: "Hezitze zentro bat da eta ez zaintza leku hutsa". Honi buruz Alotza eta Seaska Haur-Eskoletako gurasok haxe esan nahi dugu:

1.- Merkatuaren bedekapenak jasotako proiektu batek, aurrera ateratzeko, ez du besteen deskalkifikazioetan erori beharrik. Ez da oso dotorea.

2.- Inguruko Haur-Eskoalk ez dira tradizionalak, baina badute tradizioa ondoko ataletan: guraso eta irakasleen esfortzuan, oztupo ekonomikoetan, irakasleen prestakuntzan eta esperientzian.

3.- Seaska eta Alotza zentroek ikuspegi pedagogikoa dutelako. San Benito Ikastolako haurtzaindegiaren inguruan ez dago beste haurtzaindegiarik, Haur-Eskolak daude eta ez dute planteatzen 0-2 urteko zikloa, 0-3 urtekoa baizik.

4.- Honelako adierazpenekin, Haur-Eskoletako gurasok axolagabekeria eroritako jende inoztat hartzen gaitzute.

5.- Zaintza leku hutsak ez direlako, inguruko Haur-Eskolek ez dute eskaintzen OTA antzeko 500 pezetako ordu sueltoko zerbitzuak. Zerbitzu hauek, merkatu analisi baten arabera, bideragarriak izango liriteke, baina honetan ez dugu ikusten hezitze aukera handirik. Besteak beste, ondokoarekiko errespetoan hezitze aukera, kasu.

Seaska eta Alotza Haur-Eskolako gurasoen asanblada

Lazkaoko haurtzaindegia

Goierritarra aldizkariaren 161. zenbakian Lazkaoko 'San Benito' Ikastolak 0-2 urte bitarteko haurtzaindegia zabaltzeko asmoa duela azaltzen zitzaigun.

Izenburua irakurrita, guraso garen aldetik eta baita profesionalak garen neurrian, poztu egin ginen. Izan ere, honelako erabakia beti ontzat hartzen dugu bi arrazoiengatik: alde batetik, planifikatutako hezkuntza testuinguruak eskaintzea ume guztientzat aberatsa delako eta bestetik, gurasoen bizitza pertsonala, familiarra eta profesionalaren bateragarritasunerako beharrezko tresna delako.

Baina poz hori harridura eta haserre bihurtu zen idatzi osoa irakurri ondoren. Nola daiteke ikastolako arduradunek, hezitzaileak izanda gainera, bere ikastetxeak eskainiko duen zerbitzua goraiatzeko eskualdean dauden beste zerbitzuen deskalkifikazioa jotzea? "Inguruan dauden haurtzaindegiak zenbait behar ez dituztela behar den bezala betetzen... Ikuspegi pedagogikoa ez da kontutuan hartzen..." edota

"Hezitze gunea da, ez zaintza leku hutsa bakarrik" bezalako baieztapenak ez jakintasuna eta informazioerik eza besterik ez dute azaltzen.

Izan ere, gure eskualdean dauden beste bi Haur Eskolek, Beasaingo eta Ordiziako alegia, ikaragarriko eperientzia dute eta Haur Eskolen arloko profesionalen balorazioa eta errekonozimendua dute. Ez da alferrikakoa izan azken urteotan egindako esfortzua irakasleen etengabeko prestakuntzan eta umeen eta familien beharrei buruzko hausnarketan. Horren ondorioz, adibidez, Pedagogi munduan aski ezaguna den 'Hik Hasi' aldizkari berak Seaska Haur Eskolako esperientzia eredutzat azaltzen zuen orain dela urte pare bat. Era berean eta heziketa prozesuan familiak duen garrantzia jakinda, bere beharrei erantzuteko antolamendua egituratzea lortu dute (harrera umeak, egutegiak, ordutegiak, topaketa guneak, haur nagusiagoentzako zerbitzua, e.a.). Honen guztia orain ondorioz aspaldi aldatu zuten beren izaera: haurtzaindegia izena alde batera utzi eta Haur Eskola bihurtu. Azken helburua, familien beharrei erantzunez, umei inguru hezgarria eskaintzea da (hezitzaileak, ekintzak, espazioaren antolamendua, e.a.), beti ere 0-3 urteko zikloak dituen ezaugarriak eta marka legala abiapuntutzat hartuz.

Amaitzeko, esan beharra dago oso ondo deritzogula Goierriin beste haur eskola bat martxan jartzeari. Baina egokiago litzateke inguruko haur eskolak ezagutu, interesgarria dena jaso eta proiektu berri hau urteetako esperientziarekin aberastea. Elkarren arteko lana, konpetentzi normalizatu baten barnean, denontzat eta batez ere hezi behar ditugun haurrentzat, aberasgarri izan daiteke; deskalkifikazioa berriz, hezitzaileok landu beharko genituzkeen baloreen aurka doa. Beraz, ez dezagun erabili.

Jose M. Iturzaeta
(pedagogoa eta orientatzailea)

Ana Agirre
(pedagogoa eta irakaslea)

TXANDAKA

'Azpiko lana' egin dutenei

Pentsatzen jarria naiz nola utziko dudan Goierriarrako txoko hau "omenalditxo" edo goraipen txiki bat egin gabe. Horixe egin nahi nieke gure historian zehar herriaren eraldaketa lanean aritu diren guztiei. Baina izen-abizenik ez dut aipatu, "azpiko lana" edo "txingurriaren lana" egin dutenak makina bat baitira, baina gutxitan aipatuak. Guzti hoiek ezaugarri batekin etiketatuko ditut: "Azpi laneko langileak".

Zaku horretan hasteko etxeoandre eta etxetik lanean zintzoki aritu direnak aipatu nahiko nituzke. Gerlari onari arropak garbitu eta jaten ematen aritu diren eta ari diren etxeoandre guztiei. Ospea etxeo atetik kanpora hartu dutenentzako ez legoke meriturik atetik barruko "azpi lana" egon ez balitz. Gerlari hoiek etxean ezkutan izateko erantzunkizuna izan dutenei ere nire aipamentuoa...

Herri euskaldun bat lortzearen, euskaldun izatearren gau eta egun lanean jardun direnei..., "Gau eskoletan" tinko euskara ikasteko ahaleginetan aritu direnei, ari direnei...

Laneko orduetatik at: lokalak garbitzen, idatziak prestatzen, haurrak hezitzen, dantza saioak ematen, zapiak margotzen (eta abar luze bat)... aritu direnei...

Historian pixka bat atzera eginaz: Gaur erretiratu xamar daudenei, garai batean nazionalista izateari uko egin ez zientenei. Beren garaian Karlitzak indarrean zirenean ere (orain 40-50en bat urte), euskal identitateari eusten lana egin zuten guztiei... Edozein prezioetara ordaindu behar izanda ere, abertzale izatearren borrokatu zuten guztiei nire mirespenik hunkigarriena. Herrian irainak, epaiketak, gartzela ezagutzera behartuak izan zirenei nire agurra.

Abertzale izatearen sentimena, borroka, gaurko kontua ez dela gogora arazten didaten osaba-izebeeik omenaldi xume hau.

Zaldibin, gure etxean behintzat entzun izandakoak, ezagutzekoak eta jakitekoak dira. Galde bestela gazte, zuen aiton-amonei.

Beraz nire helburu ttipi hau lorturik, beraipatu ez dela garaipenik "azpiko lanik" gabe, ez osperik "txingurri lanik" gabe. Baserria tinko izateko egunero "azpi atea behar"... Zuei nire agurrik beroena.

Maddalen Hernandez Irastorza



Onenekin ibiltzeko beharrezkoa al da dopatzea?




Rikardo Goiburu
25 urte, langabetua
ordiziarra

Gaur egun bai, ez dago beste erremediorik. Dagoen nibela-rekin goian egoteko dopatu egin behar da.

Jon Arruabarrena
16 urte, langilea
zaldibitarra

Egia esan kirola ez dut asko jarraitzen eta ez dut iritzi jakin bat.



Xabier Andonegi
50 urte, langilea
ordiziarra

Ez da beharrezkoa, baina txirrindularitzan abiadura jaitsi behar dute. Mundu profesionalean asko eskatzen da eta gehienak dopatuko dira.

MUGUJAR

Argiztapenak



Jai zoriontsuak igaro ditzazuela!

Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 943 88 86 88

☎ mugikorrak: 619 46 22 65

eta 619 46 22 68

ORDIZIA

JOS & BEL
ILEAPAINDEGIA

Urdaneta, 15 ☎ 943 88 82 52 ORDIZIA



● Azken teknika eta nobedadeak

● Ezkontza eta ospakizunetarako orrazkera bereziak

● Tratamendu bereziak: eguzkitarako, ile erorketa, e.a.

● Makilajeak, Manikura...



Presio altuko solariuma

ZINEA

ORDIZIA:

'Flores de otro mundo'.
Larunbata 17: 19:30 - 22:15;
igandea 18: 19:30 - 22:15; as-
telehena 19: 19:30.

'Corina, Corina'. Igandea
4: 16:45. (Euskaraz-dohainik)

'Trio Veracruz'. Ostirala
23: 22:15.

MUSIKA

ORDIZIA:

Uztailak 24, Beti Argi
musika bandaren kontzertu-

dantzaldi berezia, Plaza Na-
gusian, 23:00etan.

Uztailak 25, Laguntasuna
Errondailaren kontzertua,
Plaza Nagusian, 13:30ean.

Uztailak 25, Etxakiti eta
Trikizio Beti Alai pilotale-
kuan 24:00etan.

Uztailak 26, Bide Ertze-
an, Gaztetxean, 23:00etan.

ZERAIN:

Abuztuak 14 eta 15, Mu-
sutruk, 23:00etan.

Abuztuak 16, Kristina,
Amaia eta bere taldea,
23:00etan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Uztailaren 23ra arte,
Agustin Caballeroren graba-
tu erakusketa, Aterpen.

DANTZAK

ORDIZIA:

Uztailak 25, Dantza fol-
klorikoaren jaialdia: Eslova-
kiako 'Sadisan' taldea,
22:30ean, Domingo Unanue
plazan.

Uztailak 26, Dantza fol-
klorikoaren jaialdia: Bulga-
riako 'Balgarka' taldea,
22:30ean, Domingo Unanue
plazan.

ANTZERKIA

ORDIZIA:

Uztailak 16, Ordizia an-
tzerki taldearen Ernesto Ca-
balleroren 'Auto' antzezlan,
Herri Antzokia, 22:15ean.

Uztailak 26, kale-antzer-
kia: Trapu Zaharrak taldea-
ren 'La averia' lana, alde za-
harrean, 19:00etan.



VIA
Alpe **MASTER**
Elektragaiak
Sukaldeko altzariak
Mariatatz, 4 ☎ 88 86 84 **BEASAIN**

Lirain
Lurrindegia eta opari gaiak
ChristianDior
San Inazio, 14 ☎ 943 889390 **BEASAIN**

DIETETIKA ETA ELIKADURA

- ✓ Kolesterolia, diabetes eta abar zaintzeko
- ✓ Pisua kontrolatzeko eta soberan dauzkagun kilo horiek galtzeko, inongo pastilarik edo botikarik gabe. Dietista batek egindako dieta osasuntsu eta orekatu baten bidez

ESKATU ORDUA

GORAIT - Andra Mari, 5 (Udaletxe parean)
☎ 943 88 87 62 **BEASAIN**



ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
- ✓ Eguneroko menua 800 pta.
- ✓ Udaberrian terraza zerbitzua

Aldez aurretik erreserba egiteko:
☎ 943 88 03 15

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



**Barandiaran
ZERAMIKAK**



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Opakuako mendian, Araban, 100 metro²ko etxola errentan ematen da, 6.000 metro²ko terrenoarekin. 945-301027 (bulego ordue-tan deitu).

☐ Pertsona bat edo bi behar dira Iruñeko Itxurrama auzoan pisua osatzeko. Unibertsitateetatik gertu. 943-160205 / 943-800423

☐ 3 lagun behar dira Leioan pisua osatzeko. 943-883665 - 943524820.

☐ Pertsona euskaldun bat behar da Bilbon pisua osatzeko. 943-187619. Ainhua.

☐ Etxebizitza salgai Zegaman, baratza eta txabolarekin. 943-886834.

☐ Etxea alokatu edo erosi nahi nuke. 943-287300 / 943-894309 (arratsaldetan).

Lana:

☐ Zerbitzaria eskaintzen da Ordiziako jaietan ostalaritzan lan egiteko. 656-711399. Koldo.

☐ Neska bat eskatzen da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Euskalduna eta esperientziaduna. 943 888869.

☐ Neska bat behar dugu etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Euskalduna. Lazkao. 943-454573. Itziar.

☐ Gorbeiko euskal artzain txakurkumeak eskaintzen dira. Arrazakoak dira. 943-180371 (goizez)

☐ Volkswagen Caravelle furgoneta salgai. SS-AS matrikuladuna. 75.000 kilometro. Kanpinerako egokitua. 943 161964. 12:00etatik 14:00etara eta 20:00etatik 21:30era deitu.

☐ Cocker hispaniel ingele-sa eskaintzen da arraza hobetzeko, pedigree onekoa. 943 886164.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Atorrasagasti (Bustuntza - Ordizia) 943882934.

Uztailak 17-18: Cuesta (Nafarroa Etor., 39 - Beasain) 943880587.

Uztailak 24-25: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia) 943880628.

Uztailak 31- abuztuak 1: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain) 943880232.

Abuztuak 7-8: Atorrasagasti (Bustuntza - Ordizia) 943882934.

Abuztuak 14-15: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain) 943880152.

Abuztuak 21-22: Jauregi (Santa Maria, 2 - Ordizia) 943160949.

Abuztuak 28-29: Cuesta (Nafarroa Etor., 39 - Beasain) 943880587.

Salerosketak:

☐ Peugeot ST 50 zm³ko motorra salgai. 943887041-943160926.

☐ Terreno bat erosiko nuke, ehizeko postuekin. Eguerdia edo gauean deitu. 689 714768.

☐ 'Comanche' kanpin gurdia salgai. Prezio interesgarria. 943 885923.

Bestelakoak:

☐ Getarian taberna bat traspasatzen da, baldintza onetan. 943-140109. Martxial.

☐ Udako mekanografia ikastaro intentsiboak Beasainen eta Idiazabalen. 943 889993 / 943 187188.

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

Auto EASO



Ibabe industrialdea, 13 LAZKAO

☎ 943 16 30 15
☎ 606 301 955

JOAKIN ZUBELDIA PINTURA-LANAK



☎ 943 18 02 46

ATAUN

IKASTEK AKADEMIA

Hezkuntzako profesionalak goierritarren zerbitzuan

☎ 943 160 120

Joan Iturralde, 5
BEASAIN

Unibertsitate maila:

- ✓ Ingeniaritza
- ✓ Enpresa zientziak
- ✓ Fisika eta kimika
- ✓ ...

Logse (I eta II):

- ✓ Ikasgai guztiak
- ✓ Ekaina - uztaila - iraila
- ✓ Selektibitatea

Lehen eta bigarren hezkuntza:

- ✓ Ortografia
- ✓ Kalkulua eta buruketak
- ✓ Testuaren lanketa
- ✓ Ikasketa teknikak

Kurtsoan ondo gainditu gabeko gaien lanketa

Datorren ikasturterako prestatuta

Eskatu informazioa orain!

"Badago irabazizko xederik gabeko elkarte bat. Alzheimer gaixotasuna duenarekin bizi diren familiakoei laguntzea helburu duena. Gipuzkoako Alzheimer Senitartekoen Elkarte (Afagi) da".

Alzheimer gaixotasun degeneratiboa eta progresiboa da, garuna erasotu eta oroimena, pentsamendua eta portaera kaltetzen duena. Hasiera gradualak izaten du. Gauza gertatu berriak gogoratzeko edota ohiko jarduerak garatzeko zailtasuna izanik. Beraz, gaixoa senideen eskuetan geratzen da.

Nola jakin?

Lehenengo sintoma oroimenean ematen diren hutsegiteak izaten dira. Hau da, ez dute gogoratzen non utzi dituzten giltzak, betaurrekoak, galdera berdina egiten dute behin eta berriz, eta abar. Kasu askotan ere desorientazioa ematen da; toki ezezagunetan galdu daitezke.

Gaixotasunaren beste ezaugarri batzuk honako hauek dira: gauzak izendatzeko arazoak, beraz boligrafoa edo axota esan beharrean, idazteko balio duen gauza hori esaten dute.

Alzheimer gaixotasuna

Jokabide aldaketak ere nabarmenak izaten dira: etengabe ibiltzea, agresibitatea, hitzegiteko arazoak, interes falta... Egoera honen aurrean senitartekoak desorientatuta sentitzen dira eta ez dakite nora jo.

Nora jo daiteke?

Badago irabazizko xederik gabeko elkarte bat. Alzheimer gaixotasuna duenarekin bizi diren familiakoei laguntzea helburu duena. Gipuzkoako Alzheimer Senitartekoen Elkarte (Afagi) da.

Zerbitzu desberdinak eskaintzen ditu (informazio eta

orientazioa, elkar-laguntzarako taldeak...) eta ekintza desberdinak egiten dituzte.

Zer dira elkarlaguntzarako taldeak?

Talde hauek Alzheimer senitartekoei osatzen dituzte eta psikologo edo gizarte laguntzaile batek koordinatzen ditu. Bertan, gaixotasunari buruz hitzegiten da eta gaixoarekin nola jokatu behar den. Era berean senitartekoak lasai hitzegiten dute bere arazoari buruz badakitelako besteek ulertzen dietela. Bi hitzetan, entzunak eta ulertuak sentitzen dira.

Interesatuak dauden guttiak elkartera deitu dezakete. Ordizian badago talde bat eta hileko 1. eta 3. asteazkenetan elkartzen dira 16:45ean Jubilatuen Etxean.

Argibide gehiago: 943-482607.

Afagi



- Eguneroko menua
- Asteburuetan afariak kantan

☎ 943 88 39 60
Gudarien Etorbidea
ORDIZIA



**Nagusia, 13
BEASAIN**

*Poltsak
Oinetakoak
Bidaia artikulua*

**Sta. Maria, 15
ORDIZIA**

ALDASORO

Taberna - Jatetxea
Festa onak pasa!

Urdaneta, 27 ☎ 943 88 00 23 - 943 88 11 40 ORDIZIA

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*

ERREZETA



Rakel Auzmendi
Zezilioenea
Olaberria

TXOKOLATE ZURI ZOPA

Osagaiak: esnegain litro 1, 400 gr. txokolate zuri, 4 jogurt natural.

Esnegaina irakiten jarri, beroa dagoenenan txokolate zuria gehitu eta ondo nahastu. Epeltzen denean 4 jogurtak gehitu, nahastu eta hozten utzi.

Mahairatzeko, izozki bola bat erdian jartzen da eta inguruan txokolate zuri zopa. Gainetik karamelu likidoa eta menta adartxo botatzen zaio.

AHOLKUA

Estresa daukat, zer egin dezaket?



Jose Ramon Pato
Argi psikologo
klinikoa

Gero eta sarriago pertsona gehiagoren artean sortzen den galdera da honakoa. Erantzutea da artikulua honen helburua.

Lehenengo eta behin, estresari buruz ulertzen denaz zertxobait esango dut. Estresa, gure gorputzak bere indarretik haratago gehiegizko tentsio egoera luzera egokitzeko daukan era da. Beste hitz batzutan esanda, beti lehortzeko zorian egotea ezertarako denborarik gabe. Alde fisikoan eta psikologikoan eta jarreraren nabarmentzen da. Neke kronikoarekin, beti 'agobiatuta', hiperrakibitate handiarekin, geldiezina.

Arazo hau hiru fasetan garatzen da: hasieran alarma orokorreko egoera ematen da, 'mila gauzaz kezkatuta', gorputzaren funtzionamenduan aldaketa garrantzitsuak sortuz. Ondoren erresistentziaren fasea ematen da, akribitatearen erritmo frenetikorako egokitzen da. Azkenik, leher egitera iristen da, gorputzak ez du erantzuten eta pertsona guztiz lurperatuta sentitzen da, depresio fisiko eta psikologikoan eroriz.

Bide penagarri hau egin aurretik, gero eta pertsona gehiagori eragiten die, etxe-koandreetatik merkatarietara edo exekutiboetaraino, komenigarria da erremedioa jarri eta gure bizitza erritmoa piska bat ordenatzea.

Hori lortzeko, lehenengo gure denbora antolatu behar dugu, atsedenerako tartea utziz. Lanetan lehenatasunak ezarri behar dira eta premiazkoenetan zentratu.

Erlaxazio metodoren bat ikasi, egunero egiteko. Ariketa fisiko edo kirolen bat egiteko tartea jarri. Denbora bat utzi bizitza soziala

egiteko familia edo lagunekin.

Lotarako ordutegi bat eta etxera iristeko ordu bat jarri. Asertzio teknikaren batzuk ikasi EZ esaten jakin eta gehiegizko lan edo konpromezuak errefusatzeko.

Lan batzuk ondokoei eman. Hau da, bizitza estilokomun piska bat sartu, lasaia bizi eta estresetik urruntzeko; bestelakokomun urdaileko ultzera, miokardioko infartua, bikoteko krisia, komunikazio sozialean arazoak, nortasunaren aldaketa negatiboak eta bukatzen ez diren beste arazo fisiko eta psikologikoak sor daitezke.

Hau guztia, norberak praktikara eramatea zaila dela eman dezake. Batez ere prozesua aurreratua dagoenean. Baina psikologiako profesionalen laguntzarekin eta kolaboratzeko gogo piskabatekin estresaren arazolari aurre egitea eta bizitza osasuntsuago bat antolatzea posible da.



IBAI-ONDO

Altzariak neurria
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g BEASAIN

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elozegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA



MUJIKA



BEASAIN ☎ 943 88 74 00

Oporrak

GOIERRITARRA aldizkariak oporrak hartuko ditu ale honekin batera. Irailaren 3an aterako da hurrengo alea. Dena den, abuztuaren 23tik aurrera, lanean arituko gara.

Goirri-Tolosa: langile okupatuen kopuru handiena

Sabin Intxaurrea Justizia eta Lan sailburuak Beasainen emandako datuen arabera, Goirri eta Tolosaldea dira, langile okupatuen kopuru handiena duena gaur egun, azken 5 urteetako hazkundera dela eta. %46,5etik %58,2 izatera paatu da hazkundera. Langabezia daturik txikiak, Debagoiena eta Goirri-Tolosa eskualdetakoak dira.

Jakes Manjon

Ekainaren 4an Adunan izandako auto-istripuan, 20 urteko Jakes Manjon beasaindarra hil zen.

Turismo bulegoak Goierri

Ordizian, Zaharren egoitzaren azpian, lehengo gaztandegian. Ordutegiak: asteazkenetan 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; ostiraletan 16:00etatik 19:00etara; eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Seguran, Apezetxean. Ordutegiak: astelehen, asteazken eta ostiraletan 16:00etatik 19:00etara; larunbatetan, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; eta igandetan 12:00etatik 14:00etara.

Beasainen, Igartza jauregiko ermitan. Ordutegiak: astearte eta ostegunetan, 16:00etatik 19:00etara eta larunbatetan, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Zerainen, Mandioan. Ordutegiak: egunero, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Ongarri naturala

Goiekik antolatutako II. Ideia Berriztatzaileen sariak irabazi zuen proiektua hasi da dagoeneko fruituak ematen. Landare hondakinak berziklatu eta ongarri naturala egitea du helburu Konposgune enpresak. Lehenengo ongarrria salgai dago.

Idiazabal Gaztaren kofradia

Ordiziako Idiazabal Gaztaren kofradiak X. kapitulua ospatu zuen uztailaren 4an. Juanito Oiarzabal mendizalea, Erreal, ETBko 'Sustrai' saioko Gilermo Zugazua eta Sabina Iruariz base-ritarra izendatu zituzten ko-

fradekide berriak. Alejandra Iturrioz alkate berria, 'Maisu Handia' izendatu zuten. Lehenengo aldia da kargu hau emakumezko batek hartzen duela.

Yoyesen pelikula grabatzen

Helena Taberna zinegile nafarra 'Otoño' pelikua errodatzen ari da. ETako kide ohi Dolores Gonzalez Katarain 'Yoyes' ordiziarren bizitza kontatzen du filmak. Ana Torrent, Ernesto Alterio eta Iñaki Aierra dira aktore nagusiak.

Aitzol Munduate

Euskal Herriko Eskolarteko bertsolari txapelketan ataundar bertsolaria bigarrena izan zen.

Iñaki Ugartemendia

Ordiziar mendizaleak, lehenengo zortzimilako mendia igo du: Gasherbrum III.

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✖ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✖ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goirri, 12

ORDIZIA

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

AURRE ZITA

☎ 943 88 72 21

☎ 910 02 00 41

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN



GENERALI
Aseguroak


IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

☎ 943 88 87 02

BEASAIN

URBITARTE sagardotegia



- Txotxetik irekita
- Eguerdi eta gauetan irekita
- Eguerdietan hobe aurrez deitzea

Erreserba telefonoa:

943 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN



- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea

☎ 943 88 40 57

ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7

☎ 943 88 80 29

BEASAIN



OSTATUA


Tel.: 943 88 58 29

OLABERRIAko KASKOAN



EGUNEROKO MENUA
LANEKO MENUA

KARTA ZERBITZUA
DASTATZE MENUA



SAGARDOTEGIKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA

KHADIM FALL SENEGALDAR ORDIZIARRA, SALTZAILE ETA KAZETARIA:

"Euskal Herrian integratzeko beharrezkoa da euskara jakitea"

Khadim Fall senegaldarra orain dela 10 urte etorri zen Ordiziara. 31 urte ditu. Arazo ekonomikoengatik egin zuen Senegaldik Europarako saltoa. Kalez kaleko eta tabernaz tabernako salmenta lanean hasi eta orain Euskal Telebistan lanpostutxo bat lortu du. Euskal Herrian integratzeko euskaraz ikastea beharrezkoa zela ikusi zuen Khadimek, eta baita ikasi ere. Harrituta gelditzen da senegaldarra, bertako askok euskaraz dakitela ikustean. Euskal Herriak eta Goierrik bere lekutxo lortu dute Khadimen bihotzean.

Senegaldik Europara etortzeko ez zuen inolako arazorik izan Khadim Fallek, ikasketak bukatuta izaten duten txarteltxo bati esker bisatua lortzen baitute. Belgikara jo-



an zen lehenengo. Orduan, legalitatetik ihes egin eta Frantziara joan zen. Frantziatik Valentziara eta Mediterraneo aldetik, Nafarroatik barrena, Ordiziaraino iritsi zen. "Nire asmoa ez zen hasieran Euskal Herrira etortzea. Baina zirkunstantziengatik hona etorri nintzen. Valentzian polizia asko zebilen kolean. Nik ez neukan pape-rik garai hartan. Nire lehen-gusu bat Ordizian bizi zen eta hona etortzea erabaki genuen. Euskal Herrian poliziarekin ez zegoen hainbeste arazo", esan digu Khadimek. Paper guztiak lortuta ditu orain, eta "legala" da.

Salmentan hasi zen lehenengo, kalez kale eta tabernaz taberna. "Gaztelera ere ez nekien. Eskuan txuletak idatzita ibiltzen nintzen. Esaldi eta hitz zehatzak idatzi eta baita gauza bakoitzaren prezioa ere".

Euskal Herrira etorri zenean, Khadimek ez zekien ez gaztelera eta ez euskararik. Gaztelera kolean ikasi zuen eta euskara ikastera Lazkao-ko Maizpide euskaltegira joan zen, bizpahiru urtera. Ordiziako Udalak diru-laguntza eman zion, garai hartan lanik ez zuenez. "Poliki-poliki konturatu nintzen hau Euskal Herria dela eta oso ga-

rrantzitsua dela euskara jakitea. Hemen integratzeko beharrezkoa da euskara. Norbait Frantziara joango balitz eta han integratu eta bizi nahi izanez gero, frantsesa ikasi beharko luke. Erdaraz zerbait banekin eta euskaraz ikasten hasi nintzen, hasiera zaila izan zen, baina Jaungoikoari esker, euskaraz nahikoa ondo moldatzen naiz", dio senegaldarrak. "Bertako jendeak euskaraz ez jakiteagatik txundituta, harrituta, gelditzen naiz. Integratzeko euskaraz jakitea beharrezkoa da".

Azokaz azoka ibiltzen da Khadim, bere lekutxo egi-tea lortu du. Orain Euskal Telebistan tartetxo bat ere lortu du; 'Azken uda pasa' saioko kazetaria da. Euskarazko eta erdarazko saioretan lan egiten du. Herriz herri ibiltzen da gai zehatzei buruzko galderak eginez.

Aitari bakarrik esan dio telebistan hasi dela lanean, "han ez baitute ulertuko. Telebista zer den badakite bai-



MUJIKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



JAIK ONDO PASA

ETXEZARRETA, 3
ORDIZIA



- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegitratzea
- Altxarigintza industrialak
- Bulego altzariak

☎ 943 88 77 90 Mallotz, 25. pab.
Faxa: 943 88 82 67 ORDIZIA



AZURMENDI
Harategi - Urdaitegia

Victor Mendizabal, 2 ☎ 943 88 47 65 ORDIZIA
San Inazio, 6 ☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28 BEASAIN

na ez dakite zertan ari naizen. Hara joaten naizenean adieraziko diet”.

Familia mantendu beharra

Europara familia mantentzeko diru bila etorri zen Khadim. “Senegalen bada esaldi bat. Etxeko seme zaharrenak

aitaren oinetakoak txiki dituenen edo ondo dituenen, familia seme horrek mantentzeko garaia iritsi da. Lehenengo semea arduratzen da familia mantentzeaz”. Arabiera ikasi zuen Senegalen eta irakasle lanean hasi zen. Baina familia guztia mantentzeko adina ez zuen ematen.

Europara etortzea erabaki zuen orduan.

Bisatua lortzeko arazorik ez zuen izan Khadimek. Gaur egun gero eta zailagoa omen dago. “Bisatu gutxi ematen dituzte eta jendeak Europara etorri nahi du. Afrikan bizitzea zaila da baina Europar bizitzea ere bai.

Haiek ikusten dute hemen guk hiru-lau urte eginda, beraien baino diru gehiago daukagula. Haiek orduan Europara etortzea nahi dute”.

Euskal Herrian gustura

Goierritarrok oso ondo hartu omen dugu Khadim. Batere kexurik ez du, “eskerrak ematea besterik ez daukat. Ordiziako Udaletxekoek asko lagundu izan didate”.

Jarrera arrazistarik ez du somatu inguruan. “Ikusi behar dugu nahi duguna lortu dezakegun ala ez. Baina nahi dugun guztia lortzen ez dugunean ezin da esan arrazistak direnik. Arrazismorik ez dugu nabaritu senegaldarrok Gipuzkoan. Beste lurraldeetan ez dakit. Euskaldunokin ondo elkar hartzen dugu”.

Senegalera noizean behin joaten da bisitalditxo bat egitera. Astero deitzen du telefonoz hango berriak jakiteko. Egunen batean Senegalera itzuliko dela badaki, baina aitortu digunez, zaila izango zaio Euskal Herria betirako uztea. “Nire bihotzean Euskal Herriak lekua handia dauka. Senegalera itzuliko naiz baina tarteka Euskal Herrira ere etorriko naiz.”.

Senegal

Senegal Afrikan dago, Dakar da hiriburua. Khadim Touba hirian bizi da. Bigarren herri handiena omen da. Herrialde txikia da Senegal. 10 bat milioi senegaldar bizi dira bertan. 13-14 hizkuntza ezberdina daude. “Nahiz eta hemengo liburuetan hango hizkuntza ofiziala frantsesa dela jarri, oso jende gutxi hitz egiten du frantsesez. Nik uoloferez hitz egiten dut”.

Jende gehiena nekazaritzatik bizi da, salmentatik ere bai. Garraiolari asko dago. Gero eta turista gehiago joaten da bertara. Euskaldunekin topo egin zuen azkena joan zenean.

Erlizioz musulmana da Khadim. Euskal Herria oso ezberdina da kultura, ohitura eta erlijio aldetik eta nola moldatzen den galdetu diogu. “Otoitz egiteko eta janariarekin daukagu arazorik handienak. Txerrikirik ezin dugu jan eta alkoholik ezin dugu edan. Txerriak behin jan nuen, baina jakin gabe. Emakumeekin ezin dugu harremanik eduki ezkondu gabe. Egunean 5 aldiz otoitz egin behar dugu. Baina kanpoan izaten naizenean ezin izaten dut egin. Otoitz egin aurretik, eskuak hiru aldiz garbitu behar ditugu, sudur-zuloetan ura sartu hiru aldiz, aurpegia gar-



bitu hiru aldiz, ahoa, belarriak eta burugaina ere bai. Oinetakoak kendu behar dira, eskubitik ezkerrera”.

Urtean behin, Ramadan garaian, hilabete-ko barauldia egiten dute. “Hori zehatz-mehatz betetzen dugu, gainera ondo etortzen da kilo batzuk kentzeko”. Euskal Herrian janaren eta edanaren inguruan gauza asko egiten da. Khadimek ezer jaten hasi aurretik zer den galdetzen du eta erosketak egitera joaten denean, zein osagarri dituen begiratzen du.

Musulmanek emakume batekin baino gehiagorekin ezkon daitezke. Zazpi emakume eduki ditzake gizon batek. Zazpigarrena berezia izaten da. Khadimek aitortu digunez, berak bakarra nahi du.

ORDIZIAN eta BEASAINEN



- Etxebizitzak
- Apartamentuak
- Lokal komertzialak
- Garajeak
- Kalitaterik oneneko eraikuntzak

S.a.

Filipineta, 13 - behea ☎ 943 88 49 50 ORDIZIA



Umeen arropa denda

FESTETAN ONDO IBILI
ETA OPORRAK ONDO PASAI

☎ 943 16 12 39
Santa Maria, 13
ORDIZIA

Santa Ana jaia Ordizian

Uztailak 16, ostirala:

22:15ean: Ordizia antzerki taldeak Ernesto Caballero-ren 'Auto' lana antzeztuko du Herri Antzokian.

Uztailak 17, larunbata:

Txikien koadrila eguna:

10:00etan: Gipuzkoako Udako txapelketa, Majoriko igerilekuan.

12:00etan: Suziri eta bonben jaurtiketa. Plaza Nagusian txikien koadrilen biltzea.

Ondoren: Buruhandi eta erraldioen alardea.

16:00etan: Gipuzkoako Txirindulari txapelketa, 2. urteko kadeteen mailan.

16:15ean: Haur jolasak, J.M. Barandiaran plazan.

17:00etan: Gomazko pilota-finalak, Beti Alai pilota-lekuan.

18:00etan: Buruhandi eta erraldoiak.

19:00etan: Haur animazioa Plaza Nagusian.

20:00etan: Beti Argi bandarekin koadrilen kalejira.

22:30ean: Suzko zezena Arboledan, Beti Argi bandak alaitua.

23:00etan: Haurren mozerro



dantzaldi handia, Beti Alai pilotalekuan.

Uztailak 18, igandea:

9:00etan: Goizeresia Ordiziako Txistulariekin.

10:00etan: Gipuzkoako Uda txapelketa, Majoriko igerilekuan.

10:45ean: Haurren alkate jaun-andreei harrera udaltxean.

11:00etan: Meza. Ondoren, danborrero eta upeltxo taldeek Beti Argi bandaren laguntzaz, Ordiziako martxa joko dute.

12:00etan: Haurren ohiko aurrekua, Plaza Nagusian.

12:30ean: XV. Ortzadar Argazki Lehiaketaren sari-ba-

naketa Barrenan.

16:30ean: Ordizia III. Torneoaren pilota finalak, kadete mailan, Beti Alai pilotalekuan.

20:00etan: Haurren danborrada. Bukaera Plaza Nagusian.

Uztailak 23, ostirala:

20:00etan: 'Veracruz Hirukotea'-ren kantaldia, Herri Antzokian.

23:00etan: Beti Argi musika bandaren dantzaldi-kontzertu berezia.

Uztailak 24, larunbata:

10:00etan: Arku tiraketa erakustaldia haurrentzat, Nikolas Lekuona plazan.

12:00etan: Txupinazoa.

12:15ean: Buruhandi eta erraldioen alardea.

16:30etik 19:30era: Koadrilen arteko jokoak J.M. Barandiaran plazan.

18:00etan: Buruhandi eta erraldoiak.

21:30ean: Ohiko danborrada. Ondoren, Koxkola txaranga kalez kale.

23:30ean: Boxeo jaialdia.

Uztailak 25, igandea:

7:30ean: Laguntasuna Errondailaren goizeresia.

9:00etan: LXXXVI. Villafranca txirindulari proba. Bukaera, 13:30ean.

13:30ean: Laguntasuna Errondailaren kontzertua, Plaza Nagusian.

18:00etan: Behi Bi's taldearen kale-antzerkia, Sasieta-ren eskutik.

18:30ean: Larruzko pilotaz pala partiduak, Beti Alai pilotalekuan.

18:30ean: Beasain, Tolosa, Legazpi, Urretxu, Altsasu, Olazti eta Ordiziako erraldioen bilkura.

19:00etan: Koxkola txaranga.

21:00etan: Beti Argi bandarekin kalejira.

Taberna BARRAK

FESTA ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!

Etxezarreta Kalea
ORDIZIA

PURE TXOKO

Jai zoriontsuak denoi!

Opilak
Kafeak
Freskagarriak

© 943 88 90 98
Domingo Unanue, 5 **ORDIZIA**

Kiská
PUB

Santa Maria **ORDIZIA**

Jai zoriontsuak denoi!

MARTINEZ *Jatetxea*

Santa Maria, 10 © 943 88 06 41 **ORDIZIA**



22:30etan: Dantza Folkloriko-koen jaialdia D. Unanue plazan: Eslovakiako 'Sadi-san' taldea.

23:30etan: Dantzaldia Welcome orkestrarekin eta Koxkola txarangarekin.

24:00etan: Mozorro dantzaldia, Etzakit eta Triki- zio taldeekin, pilotalekuan.

Uztailak 26, astelehena:

6:00etan: Goizalde danborrada. Ondoren, txokolate- jana Arboledan.

8:30etan: Ordiziako Txistu- larien eta Trikitixak alaitu- riko goizeresia.

9:00etan: Irungo Udal Musi- ka Bandaren kalejira.

11:00etan: Meza Nagusia, Santa Ana abesbatzarekin.

13:00etan: Agintarien soka- dantza Plaza Nagusian.

18:00etan: Pilota partiduak eskuz, Beti Alai pilotale- kuan.

18:30etan: Kale animazioa alde zaharrean eta Urdaneta kalean.

19:00etan: Kale antzerkia: 'La averia', Trapu zaharra taldearen eskutik alde zaha- rrean.

19:00etan: Kalejira txaran- ga.

21:00etan: Kalejira Beti Ar- gi bandarekin.

22:30etan: Dantza Folklori- koen jaialdia D. Unanue plazan: Bulgariako 'Bal- garka' taldea.

23:30etik: Titanes Orkestra eta Kalejira txaranga, Plaza Nagusian.

23:30etan: Egan, Beti Alai pilotalekuan.

Txozna batzordea

AEK, Jarrai, Egizan, Komite Internazionalistak, Askape- na, Gazte Asanblada, Ami- nistiaren Aldeko Batzorde- ak, CNT, Ikasle Abertzaleak, AHT eta Izurri Berriak rock taldeak osatu dute txozna batzordea. Hasiera batean Jai Batzordean parte hartu behar bazuten ere alde batera gera- tu dira eta jarraian datorren egitaraua antolatu dute:

Uztailak 17, larunbata:

18:00etan: Umeentzako ani- mazioa.

21:30etan: Bertso-afaria Gaztetxean.

Uztailak 18, igandea:

17:00etan: Goitibehera jai- tsiera, zaharren egoitzatik.

19:30etan: Antzerkia, Galki- tzaro taldearekin, Gaztete- xean.

23:00etan: Kontzertua he- rriko taldeekin.

Uztailak 24, larunbata: preso eta errefuxiatuen eguna:

14:30etan: Bazkari herri- koia.

Arratsaldean zehar: Triki- trixa, herri-kirolak, parodia, bertsolariak, dantzariak eta manifestazioa.

Uztailak 25, igandea:

12:30etan: Kale ikuskizuna Hortz Muga taldearekin.

23:00etan: Kontzertua he- rriko taldeekin.

Uztailak 26, astelehena:

19:00etan: Erakusketa ez- berdinak.

23:00etan: Kontzertu akus- tikoa, Bide Ertzean taldeare- kin, Gaztetxean.

Uztailak 27, asteartea:

Eguerdian: Koadrilen ma- nifestazioa.

Arratsaldean: Kale anima- zioa danbor eta suzko mala- barekin.

Uztailak 27, asteartea:

9:00etan: Ordiziako Txistu- larien eta trikitixen goizere- sia.

11:00etan: Santanazaleen meza Parrokian.

12:00etan: Santanazaleen ohiko esku-dantza Plaza Nagusian.

12:30etan: Koadrilen irteera.

21:00etan: Kalejira Beti Ar- gi bandarekin.

23:30etan: Chicago orkestra eta Kalejira txaranga, Plaza Nagusian.

23:30etan: Drindots, Beti Alai pilotalekuan.



Xikel

NEVES
BANATZAILEA

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA**

Urdaneta, 41 ☎ 943 16 16 06
ORDIZIA

CUESTA

oihaldenda

Kortinak, alfonbrak, etxeko arropak
Oihalak

Jai zoriotsuak denoi!

Plaza Nagusia, 4 **ORDIZIA**

Fandango

- ✕ Musika tresnak
- ✕ Megafoni alkilerria
- ✕ Baxu eta gitarra klaseak

☎ 943 16 10 73

Domingo Unanue, 2 ORDIZIA



GOIERRI

Ikerketaren Zentrua

Gidatzeko eta armen baimenak

Astelehenetik ostiralera: 11:00etatik 13:30etara.

Larunbatetan: 9:30etatik 11:00etara.

Jai zoriotsuak denoi!

99-7-26 eta 27an

itxita jaiengatik

99-8-1etik 25era itxita oporrengatik

Garagartza Plaza 10

☎ 943 888734

ORDIZIA

Laguntasuna Errondaila: 39 urtez musikarekin bazterrak alaituz

Ordiziako Laguntasuna Errondailak 40 urte beteko ditu datorren otsailean. Victor Mendizabal Fundazioaren barruan sortu zen. German Telleria, Juan Jose Etxeberria eta Alfonso Carlos izan ziren sortzaileetarikoa. Urte hauetan guztietan gora-beherak izan badituzte ere, momentu honetan 14 bat lagunek osatzen dute eta hauek doazen lekuan, arrakasta ziurtatua daukate. Eliseo Alonso lehendakariarekin eta Ramon Amundarain kantariarekin izan gara.

Errondaila harizko instrumentu-taldea da, kitarra, laute eta bandurriaz osatua. Ordiziarrek, eskusoinuaren, panderetaren eta ahotsaren ere laguntza badaukate.



1960. urtean sortu zen Laguntasuna Errondaila. Garai hartan Dorretxean, Victor Mendizabal Fundazioa zegoen. Mugimendu kultural nahiko indartsua omen zen. Euskara, esperanto, xake, txistu... klaseak ematen ziren. Fundazioaren barruan sortu zen Errondaila eta German Telleria, Juan Jose Etxeberria eta Alfonso Carlos izan ziren sortzaileak. "Beasaingo irakasle bat kontratu zuten. Astean hiru aldiz etortzen zen Ordizira. Kitarra, bandurria eta

lautea jotzen ikasi zuten. Irakasleak hiru instrumentuak jotzen zekizkien. 1960ko otsailean egin zuten lehenengo emanaldia", argitu digute.

Errondaila, txistua, xakea, euskara, esperantoa

Victor Mendizabal mugimendu horretatik Errondaila bakarrik gelditzen da gaur egun. Errondailak entseiatzen duen lekuko atean oraindik aztarnak gelditzen

dira. 'Laguntasuna rondalla, txistu, ajedrez, vascuence - Ordizia esperanto grupo - Onikunvena Mar de Kaj Jaude' jartzen duen plaka bertan dago. Errondailak esperantoz kantatzen zuen kantu bat: 'Clavelitos'.

Gaur egun lehendakaria den Eliseo Alonso 1961. urtean sartu zen taldean. Ramon Amundarain 1992an, taldea momentu larria bizitzen ari zenean. "Gora-behera handiak izan ditu taldeak. Jende oso gutxirekin egon ginen garai batean. Virginia Alonso akordeoilaria, Ramon abeslaria... sartu ziren eta taldeari arnasa eman zioten. Momentuan 14 bat lagun daude. Emakumezkoak 2 bakarrik", esan digu Eliseok. Taldeak atek irekirik ditu, 10 urtetik gorako edozeinentzat. Instrumentuak jotzen bertan erakusten da, dohainik.

Denetik kantatzen dute errondailakoek. 80 bat abesti dituzte erreperatorioan. Euskaraz, gaztelaraz,

KOIOTE KOIOTE

Jai zoriontsuak

Zaldizurreta Kalea BEASAIN

Etxezarreta kalea ORDIZIA

IRURENA

Lentzeria - Mertzeria

Jai zoriontsuak denoi!

943 88 04 47

Urdaneta, 29 ORDIZIA

HERRI BATASUNA

Ordiziar eta bisitari guztia jai zoriontsuak opa dizkizuegu

ORDIZIA

GABIONA

Rodamientos, S. A.

Biltegi eta bulegoak:

Goierrri k. 4

Goierrri K. z/g 943 88 45 00 Faxes: 943 88 99 06

ORDIZIA



Ordiziako jaietan, Santiago egunean goizeko 7:30etan goizeresia joko dute eta 13:30etan Plaza Nagusian kontzertua.

frantsesez eta italiano z kan-
tatzten dute.

Urtean aktuzio asko iza-
ten dituzte, 30en bat. Ez-
kontzetan gero eta gehiago
jotzen dute. Kontzertuez
gain, elkarreetan ere saio
bat baino gehiago egiten
dute. Taldearen helburua,
ondo pasatzea da.

Azterrirra bidaiak ere egi-
ten dituzte urtean behin.
Landatan, Parisen, Italian...
izanak dira. Ramon taldean
sartu zenean, "Parisera jo-
ateko burugor jarri nin-
tzen, Parisa joan eta kalean
kantatu. Orain urtero hartu
dugu ohitura. Aurten Ita-

lian, Florenzian, izan gara.
Jende guztia harrituta gel-
ditzen da. Florenziako poli-
zia ere nahiko harrituta ze-
goen, dirua eskatzen ari gi-
nela uste baitzuten. Azkene-
an, adierazi genien eta pa-
kean utzi gintuzten. Jatetxe-
etan ere jo genuen eta nahi
genuen ardoa aukeratzeko
esan ziguten. Giro hori gal-
tzen ari da oso ondo har-
tzen gaituzte. 'O sole mio'
kantatu genuen Floren-
zian".

Sorrera arrakastatsua

Laguntasuna Errondailak
sorrera arrakastatsua izan

zuen. Bilboko Albia Kolise-
oan, Donostiako Victoria
Eugenian... jotakoak dira.
Eliseok gogoratzen duenez,
"garai hartan ez zegoen
ezer ez inguru guztian.
Emanaldi asko izaten geni-
tuen, gehiegizkoa zen. De-
siatzen egoten ginen jairen
bat hartzeko". "1962an
sortu ziren Beatles-ak. Or-
durarte ez zegoen ezer ez.
Otxoteak bakarrik egongo
ziren. Txarangak berandua-
go sortu ziren. Hemengo le-
henengo talde rockeroak
Bostak eta Loloak izan zi-
ren. Eta handik aurrera Ez
dok hamahirua izan zen",
gaineratu du Ramonek.

Garaiak asko aldatu dira,
gizartea ere bai. Eliseo
Alonsok oroitzapen batzuk
ekarri dizkigu gogora:
"Goizeresiak goizeko
7,30ak aldera izaten ziren.
Bizkaia aldera joaten gine-
nean, eta Ordiziatik autobu-
sez joaten ginen, oso goiz
jaikita eta ogitartekoa pol-
tsan genuela. Garai hartan
festa goizeko ordu biak edo
hirurak aldean bukatzen
zen eta oso garai ona izaten
zen 7,30ak gure musika en-
tzuteko. Gaur egun, ordu
horretan oraindik etxera

erretiratu gabeko jende as-
ko ibiltzen da, kaleak ziki-
nak, usain txarra..."

Erreleboa zaila

Eliseok eta Ramonek zaila
ikusten dute gazteek errele-
boa hartzea. Nahiz eta gita-
rra ikasten jende asko aritu,
errondaila bezalako talde
batean sartzeko asmorik ez
omen dute izaten. Bandu-
rriaren kasuan, bi beterano-
enek jotzen dute eta gazteek
ez dute ikasten. Gaur egun-
go gazteengandik badute
kexurik bi ordiziarrek.
"Gaur egungo gazteei dena
eginda eman behar zaie.
Beti daukate zerbait eta as-
ko kostatzen da entseiu
gehiago egin eta errepero-
ria handitzea. Arlo guztie-
tan antzera dago erreleboa-
ren kontua".

40. urteurrena

Errondailak datorren urteko
otsailean beteko ditu 40 ur-
te. Ospakizun bereziren bat
egiteko asmotan dabilta
baina horren berri zehatza-
goa urteurrena gerturatu
ahala izango dugu. Agian
grabazioaren bat egingo du-
tela aurreratu digute, nahiz
eta horretarako diru asko
behar den.

**Jai
zoriontsuak
deoi!**

**ESKAILU
TABERNA**

Arteaga, 1
ORDIZIA

MIAMI

kafetegia

Etxezarreta kalea
ORDIZIA

LEIZEA

TABERNA

ALAIA

**Taberna
Kafetegia**

*Festa zoriontsuak opa
dizkizuegu denoi*

Urdaneta, 2 ORDIZIA

HERRIKOA TABERNA

Pintxo mundialak

Giro abertzalea

Elkano Kalea ORDIZIA

Pub Zorionak II

Amonane

Ordizia

IDIAZABAL

Arizkorreta zelaia Realak estreinatuko du



Uztailaren 23an, ostirala, inauguratuko da Arizkorreta futbol zelai berria. Realak eta Eibarrek jokatu dute estraineko partidua eta Euskal Telebistak emango du egun berean (iluntzeko Gaur Eguna-ren ondoren). Udalak eta Kirol Elkarteak aspalditik zuten asmoa egi bihurtuta ikusiko dute egun horretan. Ezolatzatik eta 6 hilabetera Idiazabalak Futbol zelai berria du.

140 milioi pezeta erabili dira futbol zelai berria egiteko. Udalak Guardi Gain elkartearekin egindako hitzarmenari esker burutu da proiektua. Zelai berria egiteko "egoera ekonomiko onaren zain egon gara" Antton Irizar alkatearen esanetan. Alkatearen hitzetan, "futbol zelai ona eta luzaro iraungo duena egin nahi genuen Kirol Elkarteak hala merezi duela uste baitugu. Azken urte hauetan Kirol Elkarteak talde serio eta langilea dela erakutsi digu, egin dugun ahalegin ekonomikoa beraz justifikatuta dago".

Aspalditik zegoen herrian futbol zelai egokia egiteko asmoa. 70. hamarkadaren bukaeran somatu zen beharrari erantzuteko, Ezolatzatik 1981-ean egin zen. 90. hamarkadaren hasieran zelai berria egiteko lehen urratsak ematen hasi zen Udalak.

1993an estatuan lehendabizikoz erabili zen ekimen baten bidez, 25 herritar hiru egunez bilduta egon ziren zelai berria non egin erabakitzeke. Interbentzio Gune Partehartzaileak (IGP) izenez ezagututako metodo soziologikoari esker zelai berria egiteko aukera bakoitzak herriari zein kalte eta abantaila ekarriko zizkion aztertu zuten. Hiru egunen buruan, 25 herritarrek egokiena Arizkorreta 2 izeneko aukera zela erabaki zuten, Arizkorreta baserriaren atzean egitea. Zelaia leku horretan eginez gero ingurugiroari kalte egingo zitzaioela ikusita, IGPk egindako bigarren aukera hobetsi zuen Udalak: Arizkorreta 1, alegia, zelai berria dagoen lekua.

Zelai berria Arizkorreta parean egiteko arrazoien artean herrigunearikiko distantziari ere erreparatu zioten. Antton Irizarren esanetan, "herritarrek oinez joan behar dute zelai berrira. Herriatik gertu dago eta bertan kotxeak uzteko ez da leku asko izango". Hain zuzen ere oinez joatearen garrantzia azpimarratzeko inaugurazio egunean partidua hasi aurretik herriko plazatik futbol zelaira kalejira antolatu dute.

Inaugurazio ekitaldiaren biharamonean izango dute herritarrek zelaia gertutik ikusteko aukera, eguerditik

aurrera zabalik egongo baita ikusi nahi duenarentzat.

Egitaraua

Uztailak 21 asteazkena, 20:00etan hitzaldia Kultur Etxean: 'Euskadiko kirol selekzioen egungo egoera eta etorkizuna'. Hizlariak ESAI-Teko bi kide.

Uztailak 23, ostirala, 18:00etan trikitilari, txistulari eta dantzarien laguntzaz, herriko plazatik futbol zelaraino kalejira. 18:50etan, Realak eta Eibar taldeetako jokalariei ongietorria eta argazki saioa. 18:55etan, oroigarri eta diplomen eskaintza. Zelai berriaren bedeinkazioa. Ohorezko sakea egingo du Jesus Serranok (Idiazabal Kirol El-

karteko presidentea). 19:00etan inaugurazio partidua "Realak-Eibar" (epailea Perez Lasa jauna). 19:45ean sarrera txarteletan dauden zenbakien zozketa. IGP-an parte hartuz zelaia non egin aukeratu zuten herritarrei eskertza. Euskadiko Selekezioaren aldarrikapena.

Uztailak 24, larunbata, 12:00etan futbol Zelai berriko ateak irekiko dira ikusi nahi duenarentzat. 17:00etan "Futbol 7"ko partidua herriko taldeen artean.

Uztailaren 19tik 23ra herriko kirol argazki zaharren erakusketa egongo da jarrita Kultur Etxean 18:30etik 20:30etara.

Xabier Urteaga

Triatloia

Uztailaren 22an jokatu da Idiazabalgo triatloia. Albiste hau idazteko unean 27 lagunek zuten izena emanda. Hiruko taldeetan, igeri 4 luze, korrika kilometro t'erdi eta bizikletan 4 kilometro egin beharko ditzute. Froga 19:00etan hasiko da igerilekuan. Lehiaketa bukatu ondoren partehartzaileek (gizonezkoak nahiz emakumezkoak) sukaldean duten trebetasuna azaldu beharko dute, beraien arteko patata tortilla txapelketa egingo baita. Tortilla horiekin eta antolaketa lanetan laguntzen ari zuten di-
renen artean egingo den tarta lehiaketako jakiekin afaria egingo dute. Amaitzeko futbitoan euskarazko zine emanaldia izango da 22:00etan. Rudy txoria filmea ikusteko aukera izango da

Gazte eguna

Idiazabalgo Gazte Asanbladak gazte eguna antolatu du bihar, uztailak 17. 11:00etan hasita eskulanak egiteko aukera izango da eta ordubete beranduago malabarak. Ondoren sukaldea kalean eta bazkaria (norberak berea eramanda eta sagardo doan). 16:00etan Mus txapelketa eta ondoren toka lehiaketa. Iluntzean poteoa izango da eta 21:00etan bertso afaria.

Udal berria

Uztailaren 3an eratu zen legealdi berriko udala. Antton Irizar izendatu zuten alkate EA-k eta EH-k emandako botoekin. EAJ-k bere hautagiari eman zion botoa. Herritarrei zuzendutako ohar batean EH-k dio "Bai Lizarrak-Garaziko akordioaren baitako ekimenetan eta baita Euskal herriko Udal Ordezkariei Biltzarrean ere orain artean eman diren pausuetan Idiazabalgo Eusko Alkartasunarekin bat egin dugula ikusirik eta gure aldetik ere elkarlanerako bideak jorratzea beharrezkoa dela ikusirik, guzti honen baitan Eusko Alkartasunako Antton Irizarri alkatetzarako konfidantza botoa ematea egoki ikusi eta hala egin dugu".

ZALDIBIA

Bultziak Herrian



Urtero bezala aurten ere martxan da dagoeneko AEK-ren udako barnetegia. Ikasle kopurua eta instalakuntzaren egoera zela eta, azken unera arte etorriko ote ziren ez bagenekien ere, uztailaren 5ean etorri ziren 23 ikasle eta 4 irakasle.

Uztailaren 25era arte herrian izango ditugu bultziak, beraien euskara maila hobetu nahian. Txanda honetako euskaldun berriak zortzigarren urratsean daude batzuketan eta besteak EGA (Euskararen gaitasun agiria) azterketan prestatzen ari dira.

Euskara ikastea etorri direla kontutan izanik, eskolez gain, badute irteerak, parrandak, lagun berriak... egi-

teko aukera. Udaletxe gainean egiten dute lo eta Zubiburu elkartearen egiten dituzte otorduak. Maddalen, Intza, Sandra eta Aloña zaldibitarrek arduratzen dira bultzien urdailak asetzeaz.

*Saroi Jauregi
Iñaki Gurrutxaga*



*Xeto eta
Daniel
auzotarrak
Txamarretxeko
jaiak alaituz.*

Txamarretxeko jaiak

Urtero egiten den legez, bihar larunbata hilak 17, Txamarretxe auzoko jaiak ospatuko dira. Aurtengorako hauxe da prestatutako egitaraua:

6:45ean.- Bekokalean zain egongo gara txarangarekin.


7etan.- Toka txapelketa. Barrika ardoa eta gazta (Arrese jatetxeak eskainia).

8etan.- Auzoko artzainei omenaldia: -Txalaparta, Iztueta dantza taldea, bertsolariak: Agirre eta Lizaso.

9etan.- Afaria Arrese jatetxean.

10:30etan.- Euskaraokea haur, gaztetxo eta adinduentzat.

12etan.- Dantzaldia Etxabe Anaiak trikitilariekin.



Aratz txapeldun

Aurreko alean aipatzen genuenez, Aratz Mendizabal eta Ibon Gurrutxaga pilotari gazteek jokatu zuten Elgetan Euskla Herriko lau eta erdiko finala kadete mailan. Zaldibitar ugari hurbildu zen norgehiagoka ikustera eta aurkaria herritarra eta laguna izateak sortutako presio eta urduritasunak baldintzatu zuen partidua. Azkenean, 18 eta 13 nagusitu zitzaion Aratz Iboni. Bide beretik jarrai dezaten, garrantzitsua izango da herritarren animoa eta bultzada aurrerantzean, elkarrekin nahiz banaka, jokatuko dituzten partiduetan. Zorionak bioi!



ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN


JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

ORDIZIA

100 metrotik goming saltoak Garagartzan



Goming jauzi ikuskizuna izango da Santiago egunean, uztailearen 25ean, arratsaldeko 5etatik gaueko 10etara, Garagartza Plazan. 100 metrotik egingo dira saltoak eta horretarako garabi edo grua jarriko da. Euskal Herrian altuera honetatik egiten den lehenengo aldia izango da. 60 jauzi egingo dira. 10 salto erakustaldikoak izango dira. Salto mortalak, aulki bati lotutakoak, tirabuzoiak... egingo dituzte. Gainerako 50 saltoak, nahi duten ordiziarrek izango dituzte.

Altura batetik, goma elasti-

tikoarekin egiten den jauzia da gominga.

Pentecostes irlan (Herbrida Berriak) du jatorria kirol honek. Bertako mutilek gominga eginez gizon bihurtzeko balorea agertzen dute.

Kondairak dioenez, senarrarengandik tratatu txarrak jasotzen dituen emakume batek ihes egitea lortzen du eta ihesaldi honetan zuhaitz batera igotzen da. Orkatilak lianekin lotu eta harrapatzeko

zorian dagoenean, emakumeak salto egiten du. Emazteari ezer pasatu ez zitzaioala ikustean, senarrak ere salto egin zuen, baina lotu gabe, eta hil egiten da. Gaur egun gizonezko guztiak bildu eta 25 metroko altuera duen dorrea eraikitzen dute enborrekin. Saltari bakoitzak aukeratzen du saltoa egiteko erabiliko duen liana. Buruarekin ia lurra ikutzeraino salto egiten dute. Saltoa lianak eta dorreak arintzen du. Jauzia egoki ateraz gero, gaztea gizon bilakatuko da eta horrekin herriari uzta ona ziurtatzen dio.

Alkate berria

Alejandra Iturrioz izango da hemendik lau urtera bitartean herriko alkate berria. Boto gehien lortutako EAJ/EA koalizioako zerrendaburua zen Alejandra eta uztailearen 3an egindako bilkuran bera aukeratu zuten alkate. Lehen aldia izango da emakumezko bat herriko buru izango dena. Aurkeztutako programa aurrera eramaten izango du zeregina hemendik aurrera alkate berriak, hori bai, beti ere gainontzeko 12 zinegotzien laguntzarekin.

Orlegi irabazle

XX. Lagunarteko Futbol Txapelketako irabazlea Orlegi Taberna izan da. Finalean E.R.Matxain Ileapaindegia gainditu zuen, neurraketa eta luzapena hutsean amaitu ondoren, penaltietara. Herriko talde beteranoak lortzen duen lehen txapelketa izan da hau, lau final jokatu ondoren. 3. eta 4. postuak Badago eta Orbitarte taldeen artean izan ziren, 3na berdindu ondoren penaltietara nagusituz lehenak. Goleatzaile nagusiaren saria Matxaingo Jose Antonio Blancorentzat izan zen.

Errekor berria

Gustora egon daitezke San Jose zaharren egoitzakoak, izan ere San Fermin zozketak aurtan ere ikaragarritzko marka lortu du. 59.000 zenbaki saldu ziren. %10a San Josearako denez, ia 300.000 pta. jasoko dute. Gainontzekoa sarietarako zen, lehenengo 150.000 pta.koa 37.989 zenbakidun boletoarentzat.

Ordizia Urpekoak

OKE Urpekoak taldekoak Orensen izan genituen joaneko uztailearen 3 eta 4an. Bertan Estatuko Aleta Txapelketa zegoen jokoan eta aipatu taldeka bosgarren postua eskuratzea lortu zutela. Ane Lopez de bergara arrastearrak 1.500 eta 800 metrotan irabaztea lortu zuen eta honen ondorioz Europako Txapelketarako txartela eskuratu zuen. Egun Atenasen da eta ziur emaitza onak eskuratuko dituela. Bestalde hor aritu ziren baita ere Maitane Merino, Olatz Mendizabal, Eneritz Jauregi, Xabier De Miguel, Garikoitz Makiabar, Iñigo Feliz, Gorka Merino eta Diego Diez.

Aitor Calvillo



JOSUNE ESTETIKA ZENTRUA ETA USAINDEGIA

- * Zutikako eguzki-kabina: gaur egun munduan dagoen azkarrena eta iraultzaileena ere badaukagu, 8 minututan azala belztu eta babesten duena
- * Tratamendu bereziak: gorputz eta aurpegirako.
- * Mikropigmentazioa: ezpainetako eta betiletako makilaje iraunkorra

J. M. Barandiaran pl., 3 ☎ 943 88 28 88 ORDIZIA



● Pintxo hotz eta beroak

● Ogiltartekoak

Jai zoriontsuak denoi!

M^a Jesus Otamendi



Jose Migel Barandiaran plaza

☎ 943 88 50 00

ORDIZIA

IREKI BERRIA!

M^a Jesus Otamendi

JOSTUNA

Emaztegaiak

Neurrira egindako jantziak

- Esaiguzu nolakoa nahi duzun edo guk lagunduko dizugu
- Oihalik politenak dauzkagu
- Osagai guztiak (beloak, oinetakoak, eskularruak, diademak...)

- ✓ Keramika erakusketa eta salmenta.
- ✓ Bainuak, kanilak eta osagarriak.
- ✓ Bainugelarako altzari ugari.
- ✓ Sauna-kabinak eta hidromasaia-bainuak.
- ✓ Tximiniak, ikatz eta egur sukaldeak.
- ✓ Iturgintza, gasa eta berogailuak.
- ✓ Igeltseritza orokorrean.



Jai zoriontsuak denoi!

AUSO EGI
ITURGINTZA


Urdaneta Kalea, 41

Tfnoa. eta faxa: 943 88 95 76

ORDIZIA

ITSASONDO

Udal berriaren osaketa



Uztailaren 3an udaletxeko areto nagusian egin zen udalbatzarrean beren karguari zin egin zioten datozen lau urtetan udala osatuko duten EH ko 7 hautetsiek. Hauen artean Langraitzeko espetxetik ekarri zuten Kandido Sagarzazu preso eta zerrendako bigarren hautagaia zegoen.

Hautagai preso hamaikak hoge gutxi aldera iritsi zen Itsasondora segurtasun neurri zorrotzen artean. Kandido Sagarzazu autotik irteten ordutxo, oihuek eta txaloek enparantzako isiltasuna apurtu zuten.

Kandido Sagarzazu ordu-bete eskas senitarteko eta zenbait lagunekin egon ondoren, ordu batean hasiera eman zitzaion udalbatzarriari. Hautagai bakoitzak bere karguari zin egin aurretik idatzi bat irakurri zuten. Aipatu komunikatuaren bidez garbi utzi nahi izan zuten zin egiteko eredu edo formulismoa "legezko inposaketaga-

tik" betetzera mugatzen zirela. Era berean, beren ordezkotasun politikotik

"eraldakuntza sozialerako proiektu abertzale bat indarrez eta ilusioz" defendatuko dutela zin egin zuten udala osatuko duten zinegotziek.

Jose Mari Otegi aho batez alkate izendatu ondoren, Kandido Sagarzazu hartu zuen hitza eta herri oso baten "askatasun egarriak" bahiturik jarraitzen duela esan zuen. Euskal Herriak bi estaturen menpe zapaldua jarraitzen duela eta askatasun eta demokraziaren alde borrokan ari direnek "errepresio itzela" jasan dutela

aipatu zuen. "Gure herriaren askatasunaren alde tin-ko jarraituko dugu eta arrazoia dugulako irabaztera kondenatuak gaude", esan zuen Kandidok.

Udalbatzarra amaitu ondoren, Jose Mari Otegi alkatea eta Kandido Sagarzazu udaletxeko balkoira irteten sartzetik izan ez zutenakagurtzeko. Ordubetez bere sendiarekin eta lagunekin egon ondoren berriro Langraitzeko espetxera eraman zuten.

Nagore Etxeberria

Andra Mari jailetako egitaraua

Abuztuak 13, ostirala:

18:00: Txupinazoa.

18:00: Haurren arteko futbol txapelketa.

19:30: Gazteen arteko futbol txapelketa.

21:00: Afaria Gaztetxean.

Abuztuak 14, larunbata:

9:00: Trikitilarien diana.

12:00: Soka dantza udal korporazioaren eskutik.

Ondoren hamaiketako beheko plazan.

18:00: Zinta karrera.

19:00: Salbea.

20:30: Kalejira herriko txistulari eta buruhandiekin.

21:00: Herri afaria (izena aurretik eman ohiko lekue-tan).

23:00: Etzakit taldearekin dantzaldia.

Goizeko 11:00etatik

13:00etara eta arratsaldeko 15:00etatik 18:00etara haurren parkea izango da beheko plazan.

Abuztuak 15, igandea:

9:00: Txistularien diana.

10:00: Afizionatuen mailako txirrindularien lasterketa. Irteera udaletxe aurrean.

11:00: Meza nagusia.

18:00: Pelota partiduak Errota frontoian: Jubenilak: Gurrutxaga - Mendizabal Razkin - Iraetaren aurka. Afizionatuak: Saralegi - Etxeberria Castellanos - Hombrenen aurka.

19:00: Sagardo dastaketa eta kalejira "Pasai" txaragarekin.

23:00: Mus txapelketa udaletxe azpian.

23:00: Gozategi taldearekin dantzaldia eta mozorro lehiaketa.

Abuztuak 16, astelehena:

9:30: Txistulari diana.

11:00: Meza nagusia.

11:00: Beheko plazatik Al-tzagarateko igoera 12:00: Igoeraren amaiera eta sari banaketa (federatutako txirrindulariek ezingo dute parte hartu).

13:00: Toka txapelketa.

16:30: Haurrentzat txirrindu proba (herriko haur eta herriarren seme-alabek bakarrik har dezakete parte).

18:00: Bi animaliren aurrez aurreko apostua.

20:00: Patata tortila txapelketa.

23:00: Triki-trake taldearekin dantzaldia.



ARANDIA
Garaiea

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g

☎ 943 88 09 47

Iurre Auzoa
OLABERRIA

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 943 88 89 53

ARAMA

ZERAIN

Andra Mari jaietako egitarauaren aurrerapena da ondorengo. Abuztuaren 14tik 16ra prestatu dituzte jaiak.

Abuztuak 14, larunbata:

12:00etan: Herriko gazteen arteko futbito partidua.

16:00etan: Haur jolasak.

20:00etan: Kanpai buelta-koak eta suziriak festei hasiera emateko.

20:00etan: Ohizko gibel jatea Liztormendi elkartean. Edornork parte har dezake aurrez izena emanda.

23:00etan: Haur eta helduen danborrada.

Ondoren eta goizalderarte: Musutruk taldearekin dantzaldia.

Abuztuak 15, igandea: Andramari eguna:

9:00etan: Txistularien goizeresia etxez etxe.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Txakolin dastatzea herriko plazan.

12:00etan: Herriko gazteen kontzertua plazan.

17:00etan: Andramari bola txapelketaren hasiera.

18:00etan: Pelota partiduak.

20:00etan: Zeraingo XI.

Trikitilari txapelketa plazan.

23:00etan: Musutruk taldearekin dantzaldia goizalderarte.

24:00etan: Asto lasterketa herriko plazan.

Abuztuak 16, astelehena: San Roke eguna:

9:00etan: Txistularien goizeresia etxez etxe.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Herri kirolak.

Ondoren: Xebastian Lizaso eta Imanol Lazkano bertso-lariak.

17:00etan: Andramari bola txapelketaren azken saioa.

20:30ean: Herri afaria plazan, Lizaso eta Lazkano bertso-lariarekin eta Guillermo Segurola txiste kontalariarekin. (Oharra: mahai banaketarako izen ematea arratsalde berean, 7,30ak aurretik).

Afalondoren eta goizalderarte: Kristina, Amaia eta bere taldearekin dantzaldia.

01:00ean: Mozorro gaua, mozorrotuen desfilea eta sari-banaketa. Sariak: irabazlearentzat 10.000 pezeta; 2.arentzat 5.0000 pezeta eta hirugarrenarentzat 3.000 pezeta.

ORMAIZTEGI

Uztailen sartzearekin batera ireki zituzten udal igerilekuak. Igerilekuetako zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak lau erataria ordain litezke:

✕ Igerilekura joaten zaren bakoitzeko **ordaindu beharreko sarrerak** ondorengoak dira: 0-5 urte bitarteko haurrek sarrera dohainik; 5-7 urte bitarteko haurrek 190 pezeta; 7-18 urte bitartekoek

320 pezeta eta gainerakoek 450 pezeta.

✕ **20 egunetarako txartelak:** 0-5 urte bitartekoek dohainik; 5-7 urte bitartekoek 2.770 pezeta; 7-18 urte bitartekoek 5.115 pezeta; gainerakoek 5.775.

✕ **Udaldirako txartelak:** 0-5 bitarteko haurrek sarrera dohainik; 5-7 urte bitartekoek 3.350 pezeta; 7-18 urte bitartekoek 5.620 pezeta eta

gainerakoek 7.890 pezeta.

✕ **Familia txartelen prezioak,** udaldi osorako txartelatan: bi kideko familiek 11.240 pezeta; hiru kideko familiek 12.315 pezeta; lau kidekoek 13.790 pezeta eta bost kidekoek 14.585 pezeta.

Txartelak egin eta argibide gehiago jasotzeko udal bulegoetara joatea nahiko duzue bulegoak irekita dauken ordutegian.

Jubilatuaren irteera Baztanera

Herriko jubilatuen gaur, uztailak 16, Baztan aldera egiten ari dira irteera. Herriko goizeko 8ak aldera irten dira Ibañeta gainera hurbiltzeko. Ondoren Almandoz bisitatu-ko dute eta bertako Beola jatatxean bazkaldu. Baztanondoren Hondarribia aldera hurbiltzeko asmoa daukate.

Aitziber Murua




ZERAINGO UDALA

Abuztuko egun horiek oso aproposak izan daitezke bertako txoko, ibilbide eta altxor historiko-artistikoak ezagutu ahal izateko.

Zatoz, gonbidaturik zaude.

Zeraingo Udalak Andramari jai onak opa dizkie herritar eta kanpotarrei



BEASAIN

Tabernetan euskal musikaren erabilpena areagotzea helburu

Udalaren ekimenez, herriko tabernetan bertako musika gehiago jartzea lortu nahi da, orain arte erabilpena oso urria baita. Udalak tabernarietara gutuna eta euskal musikaren katalogoa bidalike dizkiete. Tabernarietara katalogoarekin batera doan txarteltxo bat bete eta Udal Euskaltegiara eraman, eskuratuko du nahi duen konpaktoa. Ale bakoitzak %25eko beherapena izango du. Katalogo honek uztailaren 15etik irailaren 30era iraungo du. Eskaria egiteko Udal Euskaltegiara jo behar da.

Ordiziako Baga Biga kulturgaiak dendak prestatu du katalogoa eta Durangoko azokako berrikuntzekin, udazkenean, beste katalogo bat bidaliko zaie.

Aldi berean, ekimen honenkin, tabernetako bezero euskaldunen konprometua bilatu nahi dute udalekoek, tabernetan bertako musika jar dezaten eskatzeko.

Komunikabideei ere dei berezia egiten die Udalak lehen hauek, beraien saioetan euskal musika gehiago jar dezaten eskatzeko.

Azken orduan jakin dugunez, Ordiziako Udalak ere ekimen bera jarriko du martxan.

Ezkiaga auzoko etxebizitza sozialak
Ezkiaga auzoan eraikitzen

ari diren etxebizitza sozialerako, Eusko Jaurlaritzak 19 adjudikatu behar ditu alokairu moduan. Adjudikazioa zozketa publikoaren bidez egingo da Notario aurrean, Gipuzkoako Etxebizitza Ordezkaritzak finkatzen duen toki eta datan.

Lurralde, Antolamendu eta Ingurugiro Sailaren Gipuzkoako Ordezkaritzan eskaerak aurkezteko epea uztailaren 24an bukatzen da. Kutzako bulegoen bidez edota Etxebide zerbitzuaren bidez aurkez daiteke eskaera (Tel.: 902-424444).

Turismo bulegoa

Igartzako jauregiaren ondoren, Belengo ermitan, Udal Turismo Bulegoa zabaldu da. Bulego honek Beasaingo eta Goierriko tursimoko eskaintzaz informatzeaz gain, Igartzako multzo monumentalerara bisita gidatuak egiteko aukera ematen du.

Bisitak dohainik izango dira. Uztaileko eta abuztuko ordutegiak hauek dira: asteartetan eta ostegunetan, arratsaldeko 4etatik 7etara; larunbatetan, goizeko 10etatik 1era, eta arratsaldeko 4etatik 7etara.

Kronista berria

Beasaingo kronika idazteko kronista beharrean gaude. Inork interesa badu, dei beza 943-889612 telefonora, abuztuaren 23tik aurrera.



Eguneko zentrua martxan

Eguneko zentrua martxan da uztailaren 8az geroztik, Urbialde plazan. Eguneko zentrua, familiako egoera, gizarte egoera, ezintasun fisiko edo psikikoagatik mugatuta edo autonomiarik gabe dauden 60 urtetik gorako pertsonen laguntza osoa eskaintzen duen zentrua da. Astelehenetik ostiralekera dago irekita zentrua, jaiegunetan izan ezik, goizeko 9,30etatik arratsaldeko 5,30etara. Eguneko zentruak eskaintzen dituen zerbitzuak hauek dira: garraioa, Gurutze Gorriarekin; pertsonaren garbitasuna; mantenua, bazkaria eta askaria edo merienda; eta ekintza ludikoak. 16 pertsonarentzako dago egokitua zentrua. Momentuan 5 lagun daude bertan. Ez da beasaindarrei soilik zuzendutako eskaintza, goierritar guztiei baizik.

Bi profesional ari dira bertan lanean. Laguntzaile klinikoak dira biak, geriatrian espezializatuak eta Eguneko zentruetan esperientzia dutenak. Beste baldintza batzuk ere bete behar dira Eguneko zentruko zerbitzua jaso nahi duenak: oheratuta ez egotea, gaixotasun kutsagarriarik ez edukitzea, bertako ekintzetan parte hartzeko gai izatea eta zentruko dinamika ez apurtzeko gaixotasunik ez edukitzea.

Sukaldea, atsedena, ekintzetarako gela (jangelaren funtzioa ere betetzen du), bi bainu geriatriko, aldagelak, eta bisitak jasotzeko gelatxo bat du Eguneko zentruak.

Zerbitzu guztiengatik, 50.000 pezeta ordaindu behar ditu erabiltzaileak. Inork kopuru hori ordaintzeko zailtasunik izango balu, Udaleko Ongizate Sailak diru-laguntzak ematen ditu. Informazio gehiago nahi duenak, Ongizate Sailean aurkituko du. Telefonoa: 943-805238.

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:


Lanegunetan:

© 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



MEKANOGRAFIA

Beasainen eta Idiazabalen
**UDAKO IKASTARO FUTSEZKO
ETA INTENTSIBOAK**

MC Akademia

Beasain: 943 88 99 93

Idiazabal: 943 18 71 88

LAZKAO

Lazkaoko historia eta toponimia aztergai

Udalak, beste erakunde batzurekin batera, bultzatutako lan hauek, finkatuta dituzte etorkizunean eman beharreko urratsak.

Toponimiako lana, udan amaituta egongo da. Uda ondoren, etxe guztietan izango dela espero da. Mapa toponimikoa osatzeko aurrerapen modernoak erabili dira. Bertan aurki ditzakegu kale, etxe, baserri, mendi eta abarrek urteetan jaso izan dituzten izenak. Lan horretan, izugarritzko laguntza eskaini du Joxe Mari Aranburuk. Hauek dira maparen zehaztasun teknikoak; mapa, 1/7.500 eskalan eginga dago, Intxausti eta Bazterrolako lurak 1/15.000 eskalan ageri dira eta kalegueneko detailezko mapa, berriz, 1/4.000 eskalan.

Lazkaoko historiari buruzko lana, berriz, geldixea go doa. 3 atal desberdin ditu: lehenengoa, Lazkaori buruz agiritegi desberdinetan egon daitekeen informazioa jasotzea; bigarrena, iturri historiografiko eta bibliografikoak aztertzea eta azkenik, informazio guzti hau nola hala borobiltzea. Aztertu diren informazio iturriak honela sailkatu ditzakegu:

✖ Udal agiritegiak: Lazkaokoaz gain, Segura eta Ordiziakoa adibidez. Beraietan, Lazkaok, inguruetako herriekin izan dituen harremanak azter daitezke.

✖ Gipuzkoako Agiritegi Orokorra (Tolosan): lazkaotarren zenbait pleituren berri jakiteko lekua izan da.

✖ Elizbarrutiko zenbait agiritegi, hala nola, Donostia-koa eta Iruñeakoa.

✖ Euskal Herriko historia garaikideko dokumentazio zentrua (Eusko Ikaskuntza).

✖ Azkenik beste agiritegi multzo bat, 'Chancillería de Valladolid', 'Histórico Nacional (Madrid)', eta abar.

Guztira 1.600 agiri batu dituzte Lazkaori buruz, eta datu bilketa amaitu bezain laister lana borobiltzeari ekingo diote, bigarren fase honen berri ere izango duzute, noski.

Maizpideko ekitaldiak abuztuan

✖ Abuztuaren 5ean, Koldo Ameztoik, 'Makilargi' ipuina eskainiko du Maizpiden gaueko 9etan.

✖ Abuztuaren 13an, Iñaki Muruak hitzaldi-solasaldi



Ekain Arruabarrena eta Emilio Sanchez bikain

Ekain Arruabarrena txirrindulari lazkaotarraren berri askotan eman badugu ere, bada Lazkaon maila altuenean jarduten duen beste txirrindularirik ere, haue-

tako bat, Emilio Sanchez duzue. Txirrindulari honek, joan den asteburuan, gutxitu fisikoentzako estatuko txapelketan parte hartu zuen. Uztailaren 10ean, Derion, Espainiako eta Euskadiko txapeldun gelditu zen, eta hurrengo egunean berriz, erloju kontrako Espainiako txapelketa jokatu zuen Gasteizen, bertan Espainiako txapeldunorde eta Euskadiko txapeldun bilakatu zitzaigun. Emaizta hauei esker, gainera, Parisen jokatuko diren Europako txapelketetarako aukeratu dute.

Bestalde Emilio eta Ekain, Katalunia aldean izan ziren ekainaren amaiera aldean. Kataluniako txapelketa eta Gava-ko kriteriumean parte hartzera gonbidatuak izan ziren. Bai Ekainek eta bai Emiliok, bi lasterketak irabazi zituzten, bata gutxitu psikikoen atalean eta besteak gutxitu fisikoetan.

bat eskainiko du bertsolaritza jorratuz. Hau ere Maizpiden izango da gaueko 9etan.

✖ Abuztuaren 25ean, bertso trama Iñaki Murua, Maddalen Lujanbio eta Jon Maia bertsolariak. Tramaren gidaria Iñaxio Usarralde. Maizpi-

den izango da gaueko 9etan.

✖ Abuztuaren 26an, Amaia eta Ruth trikitilariak, emaldia eskainiko dute afalostean, Maizpideko jangelan.

Urko Irastortza

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

✓ Aholkularitza juridikoa
✓ Entrepresa zerbitzuak
✓ Aseguruak
GERTU ABOKATUAK
Tel./Faxa: 943 16 21 92
Kale Nagusia, 2 **BEASAIN**

Iñautsi
HORTZ KLINIKA
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zaki KOLEGIATUA
RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK
JOAN ITURRALDE, 3 **BEASAIN** ☎ 943 88 46 28

ARRIETA

Jai zoriontsuak opa dizkiezuegu!

JATE TXEA

☎ 943 88 00 02 **OLABERRIA**

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako ospakizunak

ZEGAMA

Sanbartolome jaiak abuztuaren 23tik 29ra

Abuztuak 23, astelehena:

Koadrilen eguna:

10:30etan: Herritarrentzat txirrindulari proba.

11:30etan: Koadrilen bilkura, mozorroturik.

12:00etan: Belearn jaitsiera.

14:00etan: Koadrilen bazkaria, Elizondo plazan.

17:00etan: Bezpera Nagusiak. Ondoren bola jokoa.

17:30etan: XXII. Futbito Txapelketaren finala.

19:00etan: Buruhandi, erraldoi eta zankodunen kalejira, Oria txarangarekin.

20:30etan: Mozorroen sari-banaketa.

24:00etan: Suan-Blai.

Abuztuak 24, asteartea:

San Bartolome eguna:

9:00etan: Herriko txistularien goizeresia.

11:00etan: San Bartolome ermitatik Parrokiara prozesioa. Ondoren Meza Nagusia.



12:30etan: Soka dantza, fandangoa eta arin-arin saioa.

18:00etan: Buruhandi, erraldoi eta zankodunak.

24:00etan: Drindots.

Abuztuak 25, asteazkena:

9:30etan: Diana trikitilariekin.

10:00etan: San Bartolome ermitan hildakoen aldeko meza.

10:30etan: Toka txapelketa.

13:00etan: Iñaki Murua, Andoni Egaña eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariak.

18:30etan: Bertsolarien bigarren saioa.

20:00etan: Erraldoi, buruhandi eta zankodunak, trikitilariekin.

24:00etan: Joselu Anaiak.

Abuztuak 27, ostirala:

Umeen eguna:

9:30etan: Diana herriko txistulariekin.

11:00etan: Herri mailako plater tiraketa apeaderoan.

11:30etan: Haur jokoak.

17:00etan: Herri-kirolak.

19:30etan: Zankodun, buruhandi eta erraldoiekin kalejira.

24:00etan: Kiñu.

Abuztuak 28, larunbata:

7:00etan: Sokamuturra.

10:30etan: Gipuzkoako bola txapelketa.

12:30etan: Trialsin ikuskizuna.

17:00etatik 19:00etara: Aitxuri Herri-Eskolako haurren eskularen erakusketa.

19:30etan: Globo aerostati-koa.

20:30etan: Buruhandi, erraldoi eta zankodunak.

24:00etan: Zatika eta Mo'-Mau.

01:00etan: Suziri eta traka erretzea.

Abuztuak 29, igandea:

8:45etan: LXVI. San Bartolome txirrindu froga.

Edurne Albizu

KEMEN KIROLAK

Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

Olagi Sagardotegia

Orain eguerdietan ere zabalik
Urte guztian sagardotegiko menua eta karta
☎ 943 88 77 26 ALTZAGA

ILEAPAINDEGI MISTOA

- ✓ Solarium 4.500 pta. 10 saioko bonoa
- ✓ Depilazioa
- ✓ Kolore eta permanenteak, astelehen, astearte eta asteazkenetan %5eko deskontuaz

Rekartealde, 30 ☎ 943 88 34 86 BEASAIN

IPARRAGIRRE ANAIK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24 ☎ 943 88 95 83 LAZKAO

DELUCQUENTA Pascual

ILEAPAINDEGI MIXTOA

Nafarroa Etorbidea, 17
☎ 943 882 248 BEASAIN

Garbitasunak

OXEPI

☎ 943 88 96 67 ZALDIBIA

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA
Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

ATEAK LEIHOAK ESKAILERAK ARMAIRU ENPOTRATUAK OBRAK ERREFORMAK

Izurri Berria taldeak lehen diskoa kaleratu du

Uztailaren 3an kaleratu zen Izurri Berria talde ordiziarraren lehen diskoa. Goierriko hainbat lekutan dago salgai 1.200 pezetan. Taldea honako hauek osatzen dute: Jon Jaular tolosarra baterian, Asier Iranzuegi beasaindarra bajuan, Enrike Muriel gitarran, Erri Gonzalez gitarran eta Eneko Gonzalez ahotsan, azken 3ak ordiziarrak.

1998ko udan grabatu zuten diskoa, Bilbon, Karlos Kreatoren estudioan, Ekon, Narko, Latzen eta horrelako taldeek bezala. Enekok azaldu digunez, "Makinari ona du baina ez du oso leku ego-kia eta merkea da. Bost egunetan grabatu genuen dena. Hainbat argitaletxetako atak jo ditugun arren inork ez du argitaratzeko asmorik azaldu eta gure kontura produzitu, kaleratu eta banatzea erabaki dugu". Goierriin berriak ari dira banatzen. Ordiziako taberna askotan dago salgai, baita Goierriko hainbatetan ere. Ondoren, kanpogan zirkuitu alternatiboen bidez banatzeko asmoa dute.

Izurri Berria taldekoak, oraindik izenik gabe, 1991 urtean hasi ziren lehen pausoak ematen. Enrike kitarra eta Gorka Patxi "Botas" bateria jo-leek sortu zuten.

Ondoren Erri (kitarra) eta Iranzu (bajua) elkartu zitzaizkien eta handik gutxira Eneko abeslaria. Hiru urte baino gehiago pasatuko zituzten Patxiren garajeko txoko batean entseiatzen. Lehen kontzertua entseiatzen hasi zirenetik 2 urtera eman zuten, Tolosako igerilekuko tabernan, Beasaingo 'Exhibición de Atrocidad' taldearekin batera. Garai haietan sarritan jotzen zuten bai tabernetan eta bai Gaztetxetan, baina gutxitan izan zuten kontzertu handietan jotzeko aukera. Ondoren 3 grabaketa egin zituzten. Aurrenekoa Angel Katarainekin, ordurarte egindako kanten grabaketa edukitze-

ko. Bigarrena B.G.A.-k kaleratu zuen 'Uranio Ferrum' maketan, Goierriko beste talde batzuekin batera, 2 abestirekin parte hartu zuten. "Hirugarren grabaketa argitaratzeko asmoarekin egin genuen baina lortutako emaitza ez zitzaigun gustatu eta ez kalera-tzea erabaki genuen. Urteak pasa ahala entsaio lekua Beasaindik Ordiziara pasa genuen, Ordiziako lokala handiago eta itxuro-soagoa izanik", diote taldekoek. Bi urte beranduago musika aldetik aldaketak nabarmenagoak egin ziren Jon baterijole berria sartzearekin batera.



Irailerarte 3 kontzertu dituzte lotuta: Barakaldon uztailaren 24an, Ordizian 25ean egingo dute aurkezpena txoznetan eta Ikaztegieta-ko jaietan Koma taldearekin joko dute. Irailetik aurrera bai Euskal Herrian eta bai estatuko hainbat lekutan joko dute. 18an Nafarroan Iratiko egunean eta gero Zaragoza, Logroño, Madrid, Bartzelona, Tarragona... "Estatu mailan zenbait girotan euskal

taldeak erreferentzia dira eta horrek euskaraz abesten dugun arren erraztasunak ematen dizkigu", dio Enekok.

9 urte daramatzate jotzen eta abesti asko egin dituzte, "zaharrak jotzetik utzi eta berriak egiten joan gara. Disko honetan sartu ditugun gehienak berriak dira. Agian beste disko bat kaleratzen dugunean lehengo abestiak berreskuratuko ditugu mol-

daketa batzuk eginda". 11 abesti daude, denak euskaraz, sarrera bat ere bai eta CD interaktiboa da. Ordenagailuan taldearen Ordiziko kontzertu bateko irudiak, lokalean entseiatzen eta beste hainbat..... ikus litezke. Web orri bat ere badute, bertan taldearen ibilbidea, kantuen hitzak bai euskaraz eta bai gaztelaniaz eta hainbat argazki ere azaltzen dira.

ARANTXA

taberna

PINTXO ETA
OGITARTEKO
BEREZIAK

☎ 943 88 72 46
Ordizia Kalea, z/g
ORDIZIA

LEKIM

HAROZTEGIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
ALTZARIAK NEURRIRA

Ibabe Industrialdea, 11 pab. ☎ 943 16 12 83
LAZKAO ☎(mugik.) 608 - 61 95 01

ORDIZIA

AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta
☎ 943 88 72 76



INPRIMATEGIA

URDANETA

KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ

Urdaneta, 26 ☎ 943 88 04 46 Faxa: 943 16 14 07 ORDIZIA

Txindoki Atletismo Taldeak denboraldi bikaina egin du kadete eta jubenil mailetan

Eskolarteko atletismo lehiaketetan Goierri da Gipuzkoa mailan partehartze handiena izaten duten eskualdea. Haur hauen jarraipen zehatza egiten du Ordiziako Txindoki A.T.ak. Eta hau emaitzak ematen ari da. Horren lekuko, batez ere kadete eta jubenil mailan, bai Euskadiko eta bai Espainiako txapelketetan lortu diren emaitza arrakastatsuak.

Kadeteek Gipuzkoako txapelketetan 8 urrezko domina eta 4 zilarrezko lortu zituzten. Urrezko dominak hauek izan ziren: Eneko Barandiaran altura jauzi eta pisu-jaurtiketan, Iker Agirrezabal 100 eta 300 metroetan, Mireia Sainz 100 metro eta luzera-jauzian, Marixabel Elkoro 300 metrotan eta Jon Murua txabalina-jaurtiketan. Hauetan aipagarria da Eneko Barandiaranek hainbat



EUSKADIKO TXAPELKETA

proba	kategoria	atleta	postua
3.000 m	J E	Oihana Villar	1.
Jauzi hirukoitza	J G	Lander Hijona	1.
300 m	K E	Mireia Sainz	2.
1.000 m	K E	Ana Azkona	2.
3 km martxa	K E	Ainhua Mujika	2.
60 m	K G	Eneko Barandiaran	2.
Altuera	K G	Eneko Barandiaran	2.
Pisua	K G	Eneko Barandiaran	2.
Txabalina	K G	Jon Murua	2.
100 m	K G	Iker Agirrezabal	2.
300 m	K G	Iker Agirrezabal	2.
10 km martxa	J G	Eneko Caballero	2.
100 m	J G	Aitor Estala	2.
200 m	J G	Aitor Estala	2.
Txabalina	K G	Eneko Barandiaran	3.
60 m	K G	Iker Agirrezabal	3.
200 m	J G	Iker Zudaire	3.
Luzera	J G	Lander Hijona	3.

K (Kadetea) - J (Jubenila) - E (Emakumezkoa) - G (Gizonezkoa)

probetan azaldu duen maisutasuna, hau dela eta proba konbinatuak prestatzen hasi da, honela Espainiako txapelketan Oktatlonean 3. postua lortu zuen. Iker Agirrezabal eta Mireia Sainz ere, beraien kadetetako lehen urtean; hainbat ustekabe on ari dira ematen.

Gipuzkoako selekzioan

Denboraldian zehar Txindoki A.T.ko hainbat partaidek Gipuzkoako selekzioaren deia jaso du zenbait txapelketa eta torneotan parte hartzeko: Eneko Barandiaran, Iker Agirrezabal, Mireia Sainz, Ana Azkona, Gorka Satrustegi, Aitor Estala, Marixabel Elkoro, Lander Hijona eta Iker Zudaire. Kirolariek gain Gipuzkoako federakuntzak teknikoen beharra izan du. Jon Aranburu, Jon Etxeberria, Julio Garcia eta Jose Manuel Caballero selekzioaren konzentrazioetan prestakuntza teknikoaz arduratzeko izan dira.

Egindako lan honen adierazgarri da baita ere, 2. urtez jarraian Txindoki A.T. talde mailan Gipuzkoako 3.

ETXETXO TABERNA

Pintxo bereziak!

Jai zoriontsuak pasa ditzazuela opa dizuegu!

☎ 943 88 28 83
Plaza Nagusia ORDIZIA

Arkupe

tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak
Mantak - Mairidreak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Barandiaran Plaza
☎ 943 88 00 84 ORDIZIA

OIANGU TABERNA



☎ 943 88 30 03

Euskalerrria z/g ORDIZIA

Jai zoriontsuak denoi!



GOITGI OKINDEGIA

Ogigintzan onenak!

- ◆ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 943 160501

Barandiaran Taldea,2
ZALDIBIA ☎ 943 880737



Iker Zudaire, Olaberriakoa



Lander Hijona, Lakaakoa



Aitor Estala, Lazkaakoa



Jon Murua, Lazkaakoa



Eneko Barandiaran, Ordiziakoa



Eneko Caballero, Ordiziakoa



Iker Agirrezabal, Segurakoa, artxiboko argazkian

Argazkietan ageri direnak, ekainaren azken astean Salamancan Espainiako kadete mailako txapelketan eta uztailaren lehen astean Eibarren Espainiako jubenilen txapelketan izan ziren, horretarako gutxieneko marka lortu ondoren. Hauetz gain Mireia Sainz eta Marixabel Elkoro ere Euskadiko selekzioarekin hainbat torneotan izan dira.

ESPAINIAKO TXAPELKETA

proba	kategoria	atleta	postua
Txabalina	K G	Jon Murua	1.
Oktatlon	K G	Eneko Barandiaran	3.
300 m	K G	Iker Agirrezabal	3.
Jauzi hirukoitza	J G	Lander Hijona	3.
200 m	J G	Aitor Estala	8.
K (Kadetea) - J (Jubnila) - G (Gizonezkoa)			

postuan geratu izana. Kontutan hartu behar da hori dela talde gipuzkoar guztien helburua, Real Sociedad eta Atletico San Sebastian donostiarren nagusitasuna hauetsi ezina baita.

Honela urtean zehar Espainiako txapelketara joateko gutxieneko marka 7 mutilek lortu zuten: Jon Murua (txabalina-jaurtiketan), Eneko Barandiaran (Altuera-jauzia), Iker Agirrezabal

(300 m), Lander Hijona (jauzi hirukoitza), Iker Zudaire (400 m, 330 m hesiak eta 200 m), Aitor Estala (100 m eta 200 m) eta Eneko Caballero (10 km mar-txa).

metro baino gehiago atera zizkion, eta bere markarik onenetik 36 zentimetrora geratu zen. Eneko Barandiaran ordiziarrek oktatlonen 8 probetako gehienetan bere marka hobetzea lortu zuen.

Espainiako txapelketak

Kadete mailan, Iker Agirrezabalek 300 metrotan 35"58ko denborarekin bere Gipuzkoako errekorra berdindu zuen. Jon Murua txabalinan 59,24m-ko markarekin bigarren sailkatuari 3

Jubenil mailan, Lander Hijonak jauzi hirukoitzean 10,04 metroarekin brontzezko domina lortzeaz gain, bere marka 25 zentimetrotan hobetu zuen. Aitor Estalak ere 200 metrotako proban bere marka zentesima batean hobetu zuen, 22"95.



sugaar
A s t o k a l e
O R D I Z I A



FERNANDO ARANA LEKUONA

Jai zoriontsuak guztioi!

Amerika, 2 © 943 88 89 80
ORDIZIA



**ORDIZIA
BIDEO
KLUBA**

© 943 88 79 19
Domingo Unanue, 1 **ORDIZIA**



BIÑASPRE

Oporretara joan aurretik eskuratu
Biñaspren zure brontzeatu eta
edertasun programa

Zure eguzkitarako produktuak
erosteagatik, opariak ditugu!

K. Nagusia, 8

943 88 13 37

ORDIZIA

**USAINDEGIA
OPARIAK
ESTETIKA ZENTRUA**



Ordiziako Bustuntza futbol taldea 1986an

Ordiziako Lagunarteko VII. Futbol txapelketan parte hartu zuen taldea da honakoa, Bustuntza futbol taldea. 1986an ateratakoa da argazkia.

Zutik, ezkerretik eskubira: Jesus Trabazos (Suso), Miguel A. Gil, Roke Garcia, Patxi Garmendia (Majori), Txomin Garmendia, Anjel Caballero, Patxi Tapia, Ernesto Briz (Txoros) eta Patxi Calvillo.

Makurtuta: Patxi Alonso, Emilio Hernandez, Rufino Arriaga, (Txufi), Jose Antonio Lariz, Rafa Hernandez, Dimas Irastorza, Agustin Aierbe eta Ramon Anjel Hernandez.

Arantxa
Lentzeria

Jai Zoriontsuak!

J. M. Barandiaran, 3
☎ 943 88 76 15 **ORDIZIA**

Jai zoriontsuak pasa ditzazuela!

HIDALGO

Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

*Diseinua
Berrikuntzak
Kalitatea
Garantia*

Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 **ORDIZIA**

KIXMI

*Artesania
Opariak*

K. Nagusia, 28
☎ 943 16 02 48
ORDIZIA

JM

SUKALDEAK

Euskal Herria Kalea
ORDIZIA
☎ 943 16 06 58

kontsulta eskatu

*Sukaldea berritu edo muntatu behar baduzu,
prezio ezin hobea egingo dizugu*



JAI
ZORIONTSUAK OPA
DIZKIZUEGU!



Vegasa

Suquia

ERAKUSKETA:

☎ 943 88 23 00

K. Nagusia, 10 ORDIZIA

**SUKALDEKO
ALTZARIAK
ELEKTRAGAILUAK
ILUMINAZIOA
INSTALAKUNTZA
ELEKTRIKOAK**

Foto IBILTARIA

- ✕ Laborategi zerbitzu orokorrak
- ✕ Argazki-materialen salmenta
Zuri-beltzeko laborategi materiala
- ✕ Argazki zaharren kalitatezko
erreproduzioak



Errebelatuetan kalitate onena

GEMA M. ARRUGAETA
Argazkilari profesionala

DAVID MONTERO ARRUGAETA
Bideo eta T.B.-n espezialdutako teknikaria

Elkano, 8 (Asto Kale) ☎/faxa: 943 16 22 64

ORDIZIA



*Festa onak
pasa!*

**OINETAKOAK
OSAGARRIAK**

J. M. Barandiaran Pl., 3

© 943 88 61 77 ORDIZIA



**GOIERRIKO
KULTUR
DENDA**

Baga-Biga

**LIBURUAK
MUSIKA
PAPERGAIK
KAMIXETAK
KOMIKIAK
ALDIZKARIAK
GAI ALTERNATIBOAK
ETAB.**



*ZATOZ
FESTARA!!!*

ANDRA MARI K/37
20.240 ORDIZIA (GIPUZKOA)
TFNOA-FAXA:(943)88 12 81